

Emakumeen aurkako indarkeria irmo salatuko dute Durangaldean, azaroaren 25ean. Egun horren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte eskualdean. Tartean, egun horretan bertan II. Emakumeen Lasterketa egingo dute Durangon. > 10-11

Azaroaren 25a, indarkeria matxistaren aurkako oihua

Zalez lepo egongo den Plateruenean arituko da Gatibu, gaur eta bihar; asteak dira bi kontzertuetarako sarrera guztiak saldu zirela. Testuinguru honetan elkarrizketatu du Alex Sardui abeslaria Ilaski Serrano kazetariak. > 12-13

“Aske bizitzea eta maitatzea beharrezkoa da”

Argazkia: Argazki Press

eta gabonetako POTOLUE HEMEN jausten bada? **BERRIRO**



94 620 04 57
Loteria Hiru - Administrazioa Zb. 1
San Prudenzio 2 - MATIENA (Abadino)

ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 - DURANGO - Tel.: 946 812 492

ERABATEKO LIKIDAZIOA
denda itxiko dugu eta

Durango > 3

Umei begira dauden gabeziak lantzeko, guraso elkarteak sortu gura dute

Durango > 2

JAED elkarteak gaur zabalduko du stand solidarioa, 55.000 txartel salgai jarritz

Durangaldea > 4

Mintzodromoa egingo dute Berbalagunekoek, euskara praktikatzeko

Otxandio > 9

Ekintza bandalikoen egileak gazteak diren susmoa du Otxandioko Udalak

Herririk herri

JAED elkarteak gaur zabalduko du stand solidarioa, 55.000 txarteletik gora saltzeko esperantzaz

Zozketan aterako duten etekinagaz, Durangoko eta Iurretako hainbat familiari lagunduko diete, batez ere elikagaiak emanda



Susana Lorenzo eta Covadonga Noval, eguaztenez, oraindik guztiz bete barik zegoen Andra Mariko saltokian.

DURANGO Markel Onaindia JAED elkartearen standa Andra Marian agertzen denean, Gabonak bertan daudela konturatzen hasten zara, urtebete haizea bezala pasatu dela. Atzo zirudien

helburu solidarioa duen txartela erosi zenuen eguna. Durangon, Gabon bueltako giroaren ezinbesteko protagonista bat da JAEDen saltokia, gaur arratsaldean, 18:00etan, zabalduko dute-

na. 55.000 txarteletik gora saltzeko esperantza dute, etekinagaz Durangon eta Iurretan beharra duteen familiei laguntza emateko. Esaterako, urtean 45 bat mila kilo elikagai banatzen dituzte.

50

opari egongo dira: autoa, bidaiak, telebista, ordenagailua, dron bat...

50 opari egongo dira Andra Mariko standean ikusgai. Renault Captur autoa, telebistak, Imac ordenagailua, Lisboa eta Kanariar Irletara bidaiak, 3D inprimagailua, dron bat, gitarra elektrikoa, monopatin elektrikoa, erlojuak, argazki-kamera, xurgagailu robota, Iphonea, tabletak...

29.000 euroko gastua

1,5 eurotan salduko dituzte txartelak, eta urtarrilaren 7an, bertan 18:00etan hasiko den ekitaldian egingo dute zozketa. Jendeak uste duenaren kontra, elkarteak 29.000 euro inguruko gastua dauka opariak erosten; Eroskik, Zengotita lora-dendak, Arroyabe ardandegiak, Durango Kirolakek, Encurtidos

Rodriguezek eta Mancisidor eta Tabira bitxi-dendek doan emandako produktu batzuk dira salbuespen bakarrak.

Susana Lorenzok eta Covadonga Novalek eman zuten zozketaren inguruko informazioa, eguaztenez, eta nabarmentzeko da gero eta gazte gehiagok erosten dituztela txartelak.

Laguntza eske

Bestalde, herritarrei laguntza eskatu zieten. Batetik, standean boluntarioak behar dituzte txandak egiteko. Bestetik, standea

Urtarrilaren 7an, bertan 18:00etan hasiko den ekitaldian egingo dute zozketa

urtean zehar gordetzeko leku bat behar dute, eta elikagaiak banatzeko lokal bat ere bai. Izan ere, gaur egun Kalebarrian dutena herritar batek doan utzita dagoa da, eta dagoeneko 8 urtez darabilte.

Hiltegi zaharreko eremua jolasgune bihurtuko dute

Udalak 150.000 euro erabiliko ditu, eta lanak abenduan hasteko asmoa du

DURANGO M.O. Durangoko hiltegi zaharreko eremua jolasgune bihurtzeko lanak abenduan hasiko dira, Aramotz edo *Matadero* auzoa

biziberritzeko ildoaren baitan. 2012ko urtarrilean zarratu zuten hiltegia, eta bere lursaila hesituta dago oraindik. Hile batzuk barru auzotarrek eremu

berri bat irabaziko dute bere eguneroko bizitzarako.

Udalak 150.000 euro erabiliko ditu. Lehenik, orubea berdindu dute, eta gero, umeentzako

jolasak ezarri. Gainera, farola eta banku berriak ere ipiniko dituzte ingurunean, besteak beste.

Zentro zibikoa

Proiektu hori behin-behinekoa da. Izan ere, udalaren asmoa bertan zentro zibiko bat eraikitzea da, auzotarren eskaria dena hain zuzen. Terraza bat eta kirol kantxa bi izango lituzke, besteak beste. Hala ere, oraindik ez dago egitasmo horren sorrerarako eperik.

40.000 eurogaz, zer?

Bestalde, EH Bilduk batzar zabalaren egin zuen martitzenean Aramotzeko auzotarrek. 2016ko udal aurrekontuan, auzoan inbertitzeko diru bat eskatu zuten alderdikoek. 300.000 eurokoa da partida; zati bat auzoaren biziberritze proiektua lantzeko da, eta beste bat hiltegiako eremurako. Horrela, martitzenean, gainerako 40.000 euroekin zer hobekuntza egin eztabaidatu zuten auzotarrek.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko azaroaren 17a
16. urtea - 698. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko Udalak sei herritar kontratatuko ditu

DURANGO M.O.

Enplegu Plan berriagaz, udalak sei herritar kontratatuko ditu sei hilez lan egiteko. Herriko etxe hutsen erregistro bat egitea izango da behargin horien zeregina, gero, instituzioak etxebizitza politikak sustatu ahal izateko. Baldintza sozialak ezarri dituzte: langileen %40 gutxienez emakumeak izango dira, %30ek diru sarreak bermatzeko errenta jaso behar dute, eta %20 iraupen luzeko langabeak izango dira. Programan parte hartu gura dutenek Lanbiden alta eman da egon beharko dute.

Gainera, enpresei diru-laguntzak emango dizkiete durangarrak kontratatzeagatik.

Lanbideak 171.823 euro ipiniko ditu. "Udalak ez du eskumen askorik arlo honetan, baina langabezia gutxitzen laguntzeko dituen aukera guztiak aprobetxatu gura ditu", esan du Pilar Rios alkateordeak.



Ezkerretik hasita, Orbegozo, Zabala, Uriarte, Arizaga eta Oñate. Gotzone Merino falta da.

“Durangon ez dago eskaintza duina 0-16 urte artekoentzat”

Durangoko hainbat guraso elkartzen hasi dira, umeei begira herrian dauden gabeziak aztertu eta hobetzeko proposamenak lantzeko

> DURANGO Markel Onaindia
Umeentzat aisialdi eskaintza hobia gura dute eta, batez ere, eguraldi txarra dagoenerako espazioak edukitzea. Facebooken 1.500 lagunetik gorako sarea dute; atzo batzarra egin zuten San Agustinen. Julen Orbegozo, Naiara zabala, Gaizka Uriarte, Alaitz Arizaga, Maria Oñate eta Gotzone Merino dira hasierako bultzatzaileak.

Zer asmo duzue gurasoek?

Julen Orbegozo: Durangon 0-16 urte bitartekoentzat eskaintza duin bat ez dagoela ikusita sortu da taldea. Gure asmoa jendea lanerako batzea da. Ez da soilik kekek bideratzeko elkarte bat izango; Facebooken bertan, dagoeneko, hainbat ideia jaso ditugu. Orain arte, bakarkako kekek egon dira batez ere, baina hor geratzen dira.

Alaitz Arizaga: Lan egiteko go-go dugu, ideia baikorrak sortzeko. Umeak ditugula kontuan izanda, ahal dugun erritmoan lan egin gura dugu.

Maria Oñate: Kexa bat duen edonor gure albora etorri eta hori aldatzen saiatu gaitezten. Ikuspegi eraikitzailea eduki gura dugu.

Gabeziak daudela uste duzue.

M.O.: Urtean zehar lau gauzatxo egoten dira, eta ez dira nahikoa. Durango asko hazi da, eta inguruko askok ere bertan egiten dute bizimodua. Merkatu plazara zoaz, eta saskibaloian dabilta, eta sarri zikin egoten da. Landako eskolako estalpea egin dute, baina ordutegia ez da nahikoa, eta udaltzainek sarri ez dute ate nagusia zabaltzen.

J.O.: Hori *partxe* bat izan da. Durangok beste espazio estali bat behar du.

A.A.: Eta jada daudenak ondo erabili. Ikusi egin behar da Landako Gunea zelan dagoen! Eta Ezkurdiko pilotalekua, berdin!

M.O.: Bai. Landako Gunea otsailan zabaltzen dute umeentzat, eta iaz, martxoan. Baina neguko aurreko hiletan ere hotza eta euria egiten du, ez dago argirik, eta eraikin horretan ondo egongo ginateke.

Eta euria egiten duenean, zein izaten da zuen soluzioa?

M.O.: Astelehenetan, Plateruenera, Olgetan egoten da eta. Begira, aurrekoan bertako argazki bat partekatu genuen, eta jende pilo batek ez zekien ezer horretaz! Bestela, igerileku estalira...

A.A.: Askotan, autoa hartu eta Abadiño pilotalekura joaten gara, edo Garaikora. Egun-pasa nonbaitera, edo agenda kulturean begiratu...

J.O.: Gu ere, Mañarira edo Izurtzara. Durangok emigratzea eskatzen du euria denean, ez dago prestatuta umeekin egoteko.

Ez da ohikoa gurasoak euren artean antolatzea.

A.A.: Jende batek esan dit: "Gure garaian ere ez geneukan nora jo". Baina, Durango hobetzeko gaude, ezta? Gauza asko hobetu ditugu, eta hau ere hobetu behar da. Askok bagara eta indar handia egiten badugu, lortu daiteke. Gauzak aldatzeko boterea dugu la sinesten hasi gara.

M.O.: Gizartea erritmo bizian aldatzen ari da, eta beharizan berriekin gero eta gehiagotan egingo dugu topo. Horri aurre egiteko modu bat da elkar batzea eta plan integral bat egitea. Zerbait eskaintzen badugu, arazo pilo bat saihestu ditzakegu. Gaur egun, ume pilo dago elkartu eta berbarik egiten ez duena, mugikorragaz jolasten daudelako. Zerbait eskainita, hartu-eman sanoagoa eduki ahal dute.

J.O.: Arazo hau zeharkakoa da, denoi eragiten digu. Izan ere, denok izango gara unerren batean guraso, osaba-izeko edota aitona-amonak.

Parisko martxa aurkeztuko dute, Durangon

DURANGO M.Z.

Bakearen artisauek aurkezpena egingo dute, bihar, abenduaren 9rako Parisen deituriko mobilizazioaz informatzeko. Plateruena Kafe Antzokian egingo dute ekitaldia, 11:00etan, eta abenduaren 9an eskualdeko herritarrek Frantziako hiriburura joatea izango dute helburu.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Durangaldeko aurkezpenean Iñaki Lasagabasterrek eta Miren Amurizak parte-hartuko dute, eta artisaunen mezuak plazaratuko dituzte.

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



urtxintxa
jostailu denda

Zuengandik gertu

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Mintzodromoa egingo dute Berbalagun programakoek, euskara praktikatzeko

Euskara ikasten dabiltzanentzat praktikarako topaleku bat izan gura du Berbalagun egitasmoak



Argazkian, dinamizatzaileak, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea eta euskara teknikariak.

DURANGALDEA M. Onaindia Euskara ikasten dabiltzanentzat topaleku ederra eskaintzen du Berbalagun egitasmoak. Klaseetan ikasten dutena prak-

tikatzeko bide bat da, eta jende berria ezagutzeko ere bai. Ikasleak eta euskaldun zaharrak taldean ibiltzen dira, solasaldietan eta aisialdiko ekintza

dibertigarrietan. Ekintzen artean, nabarmentzekoa da azaroaren 30ean Mintzodromoa egingo dutela Plateruean, 10:00etatik 12:00etara eta

18:00etatik 20:00etara. Berbalaguneko kideak zein herritarrak, denak batera batzeko proposamena da, taldeka eta txandaka aldatzen joanda, lagun-giroan euskara praktikatzeko.

'Praktikatu eta bizi'

Hizkuntzen ikaskuntzan ezinbesteko atala da praktikarena. Horregatik, euskara ikasleen eta euskaldun zaharren artean zubia egin gura dute Berbalagunegaz. *Praktikatu eta bizi!* da aurtengo kanpainarako hautatu duten lema.

Inskripziorako bideak

Beraz, edozeinek parte hartu dezake, eta herritarrak bertara animatu gura dituzte ardura-dunek. AEKren euskaltegietan, Durangoko Udal Euskaltegian, Hizkuntza Eskolan, udaletako euskara zerbitzuetan eta kultur etxeetan egingo dute inskripzioa, baita 639 400 786 telefono zenbakian eta durangaldea@aeik.org helbidean ere.

Bihar, ermiten arteko ibilaldian, ibilbide bi daude aukeran

MAÑARIA J.D.

Mañariko herritar batzuek ermiten arteko ibilaldia antolatuko dute zapatu honetarako. Ibilbide bi prestatu dituzte parte hartzaileentzat: 11,5 eta 3,3 kilometroko bana.

Ibilbide bietarako izenematea 07:45ean hasiko da, Mañariko plazan (euro bi). Toki beretik, 09:00etan ekingo diote herriko hainbat ermita lotuko dituen ibilbide luzeari. Hasi eta berehala, Santa Kurtzetik igaroko dira. Ondoren, San Lorentzo, Jesus Gurutzeko, San Joan eta San Martin ermitetatik ibiliko dira parte-hartzaileak berriro plazara jaitsi aurretik. Bi hornidura puntu prestatuko dituzte jan-edanagaz: San Lorentzo ermitaren ondoan eta herriko plazan bertan, ibilaldiaren amaieran.

Ibilbide laburra 10:30ean hasiko dute eta laburragoa izango da. Santa Kurtze eta San Lorentzo ermitetatik igaroko, eta handik herrira itzuliko dira zuzenean.

ZALDIBARKO XIX NEGUKO AZOKA

AZAROAK 19 EUSKAL HERRIA ETORBIDEAN

10:00 Epaimahaiaren erabakia

11:00 Azoka zabalduko da jendearentzat

14:00 Sari banaketa

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



Atxondoko gurasoak sukaldea jartzeko eskaria egiten lehenak

Hezkuntza Sailari Atxondoko Herri Eskolan sukaldea ipintzeko eskaria bidaliko diete

ATXONDO M. Zuazubiskar Kalitatezko elikadura osasuntsua umeentzat, bertako eta sasoiko produktuekin. Horixe aldarrikatzen dabil Atxondoko Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak, Berton Bertokoa dinamikako kideen laguntzagaz.

Azken astean, Atxondoko eskola komunitateak pauso "garantzitsua" eta "pozgarria" eman duela jakitera eman dute guraso elkarteak kideek. "Eskolarentzat zein herriarentzat beharrezkoa den sukaldea eskatzeko prozesua martxan jarri dugu", adierazi du Alex Azpiri Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak kideak.

Aurreko asteko eskola kontseiluan Hezkuntza Sailari sukaldea eskatzea erabaki ostean, Atxondo Berton Bertokoa ekimenaren barruan dauden bederatzi eskolatik seigarrena izan daiteke sukaldea edukitzen, eskaria egiten lehenak. "Egun bost eskolek dute sukaldea, eta gu seigarrenak izan gaitezke", esan du Azpirik. Zuzendaritza talde, guraso eta udal ordezkariak aho batez onartu duten eskaria eskolako hormetatik harago doan zerbait dela adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek. "Guretzat elikadura kultura da, eta horren alde lan egin behar dugu", aitortu du Azpirik.



Eskolan ortua jarri zuteneko argazkia.

Gaztainerre jai Bestalde, duela bost bat urtetik, herriko Ikasleen Guraso Elkarteak bultzatuta eta Marixurri

aisialdi taldearen eta Berton Bertokoa dinamikaren laguntzagaz, ohitura zaharrei eustea helburu duen Gaztainerre

jai ospatzen dute udazkenean. Gaur, 17:00etan, familia giroan batuko dira Atxondon, euskara bultzatzeko.

Garain hilerriko lanak lehiaketa publikora atara dituzte

GARAI M.Z. Garaiko Udalak hilerriko obrak lizitatuko dituela iragarri du. 74.118 euro inguruko aurrekontua dituzten lanen proiektuak abenduaren 5a baino lehen aurkeztu beharko direla jakitera eman dute udaleko kideek. Proiektuak Garaiko Udaletxeko idazkaritzan aurkeztu daitezke, astelehenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara, eguaztenak salbu.

Abenduaren 5era arte dago aukera proiektuak Garaiko Udaletxean aurkezteko

Horrez gain, eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu dezaketela adierazi dute.

Bestalde, behin proiektua eslehituta, lanak egiteko hiru hilabeteko epea izango dutela jakitera eman dute.

Ondorengoak izango dira egin beharreko lanak: lehenik eta behin, hilerriaren hego-mendebaldea egokitu beharko da, hamazortzi hobi aurrefabrikatu eginez. Bestalde, kaperaren ondoan errautsak uzteko toki bat egin beharko da. Eta, azkenik, kaperako estalkiak berritzu beharko dira.

Hondakin-uren kolektorea eta espaloia egiteko hitzarmena

MALLABIA J.Derteano Herrigunetik Ermuarako bidean dagoen Mallabiko araztegiak iraungitze-data du. Izan ere, Mallabiko Udalak, Bizkaiko Aldundiak eta URAK agentziak hitzarmen bat sinatu dute eta, horren bidez, kolektore berri bat egingo dute, herriko eta industrialdeko hondakin-urak Deba Barrenako kolektore nagusira lotuko dituen. Ma-

Kolektoreen gainetik espaloia bat egingo dute, sinatutako hitzarmenak jasotzen duenez

llabiko araztegiak arazoak ematen ditu —usaina, gainez egiten du...— eta egoera horri irtenbidea ematea da helburua. Kolektorea joango den tokitik espaloia bat ere egingo dute.

Bizkaiko Aldundiak 960.000 euro jarriko ditu proiektua aurrera eramateko, eta URAK agentziak 92.100 euro bideratuko ditu. Lanak amaitzen direnean, udalak errepide zati horren titulartasuna hartuko du, eta ordutik aurrera udalaren ardurapean egongo da.

“Nola aldatzen diren gauzak, kamarada”



Gaztetan hainbatetan oihukatzen nuen abestia datorkit gogora gaurkoan. Gurasoek eta aitona-amonek ere sarritan errepikatutako esaldia ezin dut burutik atera, “nola aldatzen diren gauzak...” eta gutxitan bada ere, onerako aldatu ere bai!

Atzera begiratu eta gogoea egitea gustatzen zait batzuetan. “Nondik nator, non nago eta nora noa?” dira noiz-behinka neure buruari egiten dizkiodan galderak. Gaur gure eskolari buruz hausnartzea tokatu zait.

San Antonio ikastetxeak irakasleok aldaketa iraultzailea bultzatu genuen 1999. urtean, kooperatiba sortu eta eskolaren etorkizuna gidatzeko ardura hartu genuenean. Izan ere, hezkuntzan ezagutzen genituen kooperatiba guztiak gurasoek kooperatibak ziren, baina guk, ardura gure gain hartuz, balio erantsi bat eman gura genion geureari. Erabaki honek erabat aldatu zuen

eskola, etorkizuneko ikastetxea eraikitzeko aurrerapauso erabakiorra eman genuen, hazia jarrita zegoen...

Hurrengo urteetan zehar, lanaren fruitua jasotzen hasi ginen. Kalitatezko zerbitzua eskaintzea izan zen gure helburu nagusia, eta horretan buru-belarri aritu ginen etengabeko hobekuntzak ezarri. Gestiorako, erantzukizun hau berria zen guretzat, EFQM ereduari jarraitu genion; 2010. ikasturtean, Alex Zabalaren gidaritzapean, Zilarrerzko Qa lortuz. Arlo pedagogikoan, berriz, Alexek lehengo eta Ana Sagastizabalek geroago, zenbatu ezinezko aldaketak bultzatu zituzten.

Hauek, ikasleen hezkuntza integrala bermatzeko, hainbat eremutan eman ziren: Ingurumen Hezkuntzan (EA21), Teknologian (IKT), Metodologian (Ikasketa Kooperatiboa, Proiektuen Bidezko Ikasketa,...), Hizkuntzetan (Hizkuntza Proiektua), Elkarbizitzan (ASIS, Hezkidetzak, Pastoralak, Bullying taldea, ...), Euskararen erabileran (Normal-kuntza), Komunikazioan (Intranet)...

Orain niri dagokit erreleboa hartzea. Erantzukizuna handia da, baina itxaropentsu eta baikor begizatzen dut etorkizuna, sustraiak sendo finkatuta baititu ikastetxeak. Lan talde bikaina osatzen dugu, hurbilak gara, profesionalak, eskolarekiko konprometitua eta hobetzen jarraitzeko gogoia daukagu. Etorkizunean izango ditugun erronkei aurre egiteko prest gaude.

“Nola aldatzen diren gauzak...” hori da entzutea gustatuko litzaidakeena. Aldatu beharra dugu, mundua etengabe aldatzen baitoa. Aldatzeko prest? Oier Urigoitia · Zuzendaria



Publierreportajea

Ika-mika abenduaren 3ko laguntzengatik

Euskararen Eguneko egitaraua antolatzeko diru-laguntza ematera konprometitu da udala

ABADIÑO A. Maldonado Azkenean, abenduaren 3an Euskararen Eguna antolatzeko diru-laguntza jasoko dute antolatzaileek, udalak zenbatekoa zein izango den argitu ez duen arren. Asteazken zehar eztabaida piztu da, egitaraua prest egon arren, elkarteek ez zutelako bermerik diru-laguntzak jasotzeko. Martitzenean publiko egin zuten kezka hori, ohar baten bidez.

Eguzen goizean bildu ziren aldeak, auzia konpontzeko. Ar-

EH Bilduren ustetan, udala gezurretan aritu da, eta euskararekiko duen utzikeria salatu dute

gi Abad euskara zinegotziaren berbetan, "txarto ulertua" izan da guztia, eta udalak euskaragaz eta Euskararen Egunaren antolakuntzagaz duen konpromisoa azpimarratu du.

Datorren urtera begira, elkarteek eta udalak egitaraua elkarlanean prestatzeko gogoia agertu dute. "Denboragaz eta patxadagaz denok batu, eta egitaraua guztion artean aurrera ateratzeko ados agertu gara

alde guztiak", adierazi dute aisialdi elkarteek.

Udalaren "interes eza"

EH Bilduk, bestalde, Abadiño-ko Independienteen eta EAJren jarrera salatu du. Koalizioaren ustetan, udalaren jarrera ez da gardena izan. "Gezurretan aritu dira diru-laguntza egongo den ala ez zalantzan jartzen, dirua badagoela badakitenean", esan dute. Hori dela-eta, beharrezko diru-laguntzak emateko eta euskararen normalizazioan pausoak emateko eskatu diote udalari ohar baten bidez.

Katalamixonen lehena

Aurtengo abenduaren 3koa Katalamixon aisialdi elkarteak antolatuko duen lehenbiziko Euskararen Eguna izango da. Aurretik, Zelaietako IGE eta Matienako institutuko guraso elkarteak ibili dira antolakuntzan.

Egun osoko egitaraua prestatu dute elkarteek aurtengorako. Goizean bizikleta martxak Abadiño zeharkatuko du. Arratsaldean, berriz, tailerrak egongo dira. Postal eta idazlan lehiaketa ere jarri dute martxan. Parte-hartzaileek azaroaren 27aren aurretik entregatu beharko dituzte lanak.

Nagusiak martxan jarri dira Abadiño atsegino bat eraikitzeke asmoz

Berrogeita hamar bat lagunek egin dute bat Abadiño Lagunkoia ekimenagaz



Pertsona nagusiei begira herriak dituen gabeziak aztertzen dira lan taldeetan.

ABADIÑO A. Maldonado Herrian nagusiek eduki ditzaketan arazo eta gabeziak topatu eta konpontzeko asmoz, Abadiño Lagunkoia programa abiatu du udalak. Maraka enpresaren laguntza dute proiektua aurrera eramateko. Udaleko talde guztiak babestu dute egitasmoa. Dagoeneko saio bi burutu dituzte, eta berrogeita hamar bat lagunek parte hartu dute bakoitzean. "Saioak giro atseginean egin dira, ikuspegi zorrotz eta eraikitzaile batetik", azaldu dute programaren sustatzaileek. Eraikin publikoeta-

ko eta aire libreko gunetako azterketak egin dira. Bestalde, azaroaren 8an eginiko bigarren saioan garraio publikoari buruzko azterketa ere egin zuten, honek sortzen dituen kezkak aztertzeke.

Une honetan, 500 hiri baino gehiago ari dira beharrezko munduko hiri lagunkoien sare bat osatzeko, eta Abadiño sare horretan sartzea da programa honen helburuetako bat. Gainera, zahartze aktibo bat edukitzeko, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako irizpideak jarraitzen ari dira

Abadiño Lagunkoian. Diagnostikoa egin ostean, hobekuntza plana udalari proposatzea litzateke hurrengo pausoa. Udalaren esku geldituko litzateke, gero, hobekuntza horien ezarpena.

Nagusiak egiten ari diren lana ezagutzera emateko, inkestak egiten ari dira herrian, eta Abadiño beste hainbat taldegaz batzeko asmoa ere agertu dute sustatzaileek. Abadiño zerbait auzotan egiten dira bilera. Hurrengo saioa Matienako Errota kultur etxean izango da, azaroaren 29an, 17:00etan.

Zerga eta tasa batzuk %1'5 igoko dituzte

Datorren urtean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari ez diote igoserarik aplikatuko Berrizen

BERRIZ M. Zuazubiskar Joan zen asteke udalbatzarrean zerga eta tasa batzuei %1'5eko igosera aplikatzea onartu zuten. Berrizko Udaleko zinegotzi guztiak eman zuten aldeko botoa.

Ibilgailuen gaineko zergari, esaterako, igosera aplikatuko diote, eta obra eta instalakuntzen zerga eta Ondasun Higiezinaren gainekoa izoztu egingo dituzte. "OHZ igotzearen gainean kezka eta zalantza asko izan ditugu. Baina, azkenean, aurtengo izoztea erabaki dugu", adierazi du Orlan Isoird Berrizko alkateak.

Tasetan, %1,5 igoko dituzte uraren, zaborraren, saneamenduen, kirol zerbitzuen, hilerriaren eta ezkontza zibilen

tasak, besteak beste. Estolderiaren, auzo-taxiaren eta establezimenduen tasek, esaterako, bere horretan jarraituko dute.

Bestalde, aurreko asteke osoko bilkuran, abeltzaintza eta nekazaritza ustiaetek saneamendu eta zaborren tasetan %50eko bonifikazioa izango dutela jakitera eman zuten Berrizko Udaleko kideek.

Hala ere, bonifikazio hauek jasotzeko, abeltzaintzako instalazioek Bizkaiko Foru Aldundiak emandako abeltzaintza-zurtagiria izan beharko dutela eta nekazaritzako erabilera duten instalazioek Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroan inskribaturik egon beharko dutela jakitera eman dute.

Martxan da Berrizko argazki lehiaketa

BERRIZ M. Zuazubiskar Dagoeneko martxan da Berrizko XIX. Argazki Lehiaketa. Udalak jakitera eman duenez, Berriz ardatz hartuta, parte-hartzaileek gura beste argazki aurkeztu ahal izango

Parte-hartzaileek azaroaren 24ra dute aukera argazkiak aurkezteko

dituzte aurtengo lehiaketan. Argazkiak aurkezteko epea azaroaren 24an bukatuko dela jakitera eman dute. Lehiaketako irabazleen berri abenduaren 1ean emango dutela adierazi dute.



DOAKO IKASTAROAK

2017-2018 IKASTURTEKO IKASTAROEN ESKAINTZA

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA

www.ibaizabalikastola.eus

Tel.: 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
Izena emateko epea: ikastaroa hasi baino aste bat lehenagora arte

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA

Ur instalazioetako sorospena

AFDP0109

290

2017/12/21
2018/04/23

15:00/20:00
asteleheneetik
ostiralera



Ibaizabal Ikastola Intxaurren kalea, 54. 48200 DURANGO



**Innovation
that excites**

AUKERA HONEKIN EZ DUZU MAHATSAK JAN ARTE ITXARONGO



**GAURSAN SOILIK GAMA OSORAKO
DESKONTU BEREZIAK LOR ITZAZU URTE AMAIERA BAINO LEHEN**

GAURSA

Arriandi Auzoa, 12 - 48215 Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 3,2 - 9,5 l/100 km. CO₂ isurpenak: 85 - 172 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

Lokalean jarraitzen dute Ziztada Gunekoek

Errekurtsoa jarri dute, epaiketako ebazpena irten arte lokaletik ez kaleratzea eskatzeko

ZORNOTZA J.D.

Lokaletik irtenaraztera joanez gero, erresistentziarik ez jartzea erabakia zuten Ziztada Guneko kideek batzar batean. Epaileak jarritako epemuga martitzenean amaitzen zen, eta langile batzuek horma egin zuten atean. Hasieran, euren lokaletik zela uste izan zuten, baina ondoko etxekoa zen. Ondorioz, barruan jarraitzen dute.

Oraindik ez da irten lokala-jabeak bide zibiletik jarritako salaketaren ostean izandako epaiketaren epairik. Ildo horretatik, errekurtso bat jarri dutela adierazi du Xabi Gutierrez

Ziztada Guneko kideak, epaibat izan arte lokaletik ez kaleratzea eskatzeko.

Ziztada Gunea kokatuta dagoen lokala —Luis Urrengoe-

Hasieran euren lokaleko atea tapiatu zutela izan uste zuten, baina ondoko etxe batekoa zen

txea kalean— 2015ean okupatu zuten kultur eskaintza alternatibo bat eskaintzeko helburuagaz.



Ziztada Guneko lokala eta ondoko etxeko atea tapiatuta.



Eraikin nagusi biak aldagela eta dutxenak izango dira. Hirugarrenean biltegia eta botikina egongo dira.

Ganeko igerilekuan aldagela berriak egiteko lanak hasi dituzte asteon

Astlehenean hasi zituzten lanak eta sei hilabete inguru iraungo dute

ZORNOTZA Joseba Derteano Ganeko igerilekuan aldagela berriak egiteko lanak hasi zituzten astlehenean. Proiektuak 571.000 euroko aurrekontua du, eta lanek sei hilabete iraungo dute.

Eraikin berri honetako beheko solairuan hiru bloke egongo dira elkarren ondoan. Eraikin nagusi biak aldagela eta dutxenak izango dira, sexuen arabera bereizita egongo direlarik. Hirugarrenean, biltegia eta botikina egongo dira. Azalera, guztira, 452 metro karratukoa

izango da. Oraingoagaz alderatuz gero, bikoitza. Eraikina belar artifizialagaz estaliko dute. Horri esker, estalki gainean ere egon ahalko dira erabiltzaileak.

Eraikin berria, neurri handi batean, egungoa dagoen lekuan

Estalkia belar artifizialagaz estaliko dute; horri esker erabiltzaileak estalki gainean egon ahalko dira

egongo da. Egitura nagusia hormigoi armatuzkoa izango da eta fatxada nagusitik eraikinera sartu ahal izango da. Alboko fatxadetan leihoak egongo dira argi naturala sartzeko, eta baita aireztatzeko ere.

Biomasa galdara

Instalazio berriek ezpal biomasa galdara bat izango dute; baita eguzki argi kontrolatzaileak ere. Horrela, eraikina, energiaren ikuspuntutik, eraginkorragoa izatea bilatuko du udalak, ohar batean jakinarazi duenez.

Hogeita bost ekoizle bilduko dira Zaldibarko Neguko Azokan

Eitzaga auzoko Josean Elustondok sagardo erakusketa egingo du, 12:00etan

ZALDIBAR A.M.

Domeka honetan egingo da Neguko Azoka. Aurten, hogeita bost postu ezarriko dira, gehie-

nak, inguruetako ekoizleenak; besteak beste, fruta, barazkiak, txakolia, ogia, pastelak, eztiak eta gazta dastatu ahalko dira

bertan. Mungiako (Bizkaia) ekoizle batzuk, esaterako, patearen deribatutako aurkeztuko dituzte. Nobedade moduan, Josean



Goizeko orduak aprobetxatzen ditu jendeak postuak ikusi eta erosketak egiteko.

Elustondok sagardo erakusketa egingo du. Eitzaga auzoko bizi-lagunak sagar zukua egingo du azokan bertan. Zuku hori dastatzeko aukera egongo da, gainera. Elustondok afizioagatik egin ohi du sagardoa.

San Andresak, ate-joka

Ekitaldi bete azaroa izango dute Zaldibarren. Datorren domekan, hilak 26, Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXVI. txapelketa jokatu da Olazar pilotalekuan. Hemeretzi urtez azpiko sei bikote gazte lehiatuko dira bertan. Maila oneko lehia egon ohi da bertan, izan ere, besteak beste, Huntza taldeko Josune Arakistain txapelketa irabazita-koa da.

San Andres jaietako ospakizunak, osteraren 29an hasiko dira. Olazarmendi gimnasia erritmikoko taldeak jaurtiko du txupina. Urtebetean ia bikoiztu egin du taldekide kopurua talde honek. Beraien omenez, dantza egingo da gero eta, aurten, ume taldeak ere dantzatuko du ohoerzko aurrekua.

Tasa jaitsiera, denda berriak irekitzen dituzten ekintzaileentzat

ZALDIBAR A.M.

Herria biziberritzeko neurriak ezartzen jarraitzen du Zaldibarko Udalak. Honela, 2018an irekiko dituzten saltoki irekitze-tasa jaitsiko zaiei. “Badakigu zein zaila den norberak bere negozioa jartzera ausartzea eta hori aurrera atera behar izatea; ekintzaile txiki horiei bultzada bat ematea egokia ikusten genuen” azaldu du Arantza Baigorri alkateak. 300 euro ingurukoa izan da tasa hori orain artean, eta neurri berriarekin, 50 eurora jaitsiko da. 2018tik aurrera zabaltzen diren dendei eragingo die neurriak. Erabakia, azkeneko plenoan onartu zen. Neurriak ez die eragingo banku, estanko edota saltoki handiei, besteak beste, alkatearen berbetan.

Ekintza bandalikoaren egileak gazteak diren susmoa dute

Gurasoekin batu dira, eta gazteekin berba egiteko asmoa dute udal ordezkariak

OTXANDIO Joseba Derteano Paperontziak erre dituzte, frontoiko atea eta metrakilatuzko egitura apurtu dute, igerilekua itxita zegoela barrura sartu eta eskailera apurtu dute, altzariak uretara bota dituzte... Otxandioko hiri-altzarietan kalteak izan dira, eta urteetako arazoa da. “Hainbat bider konpondu arren, nahita apurtzen jarraitzen dute”, dio Urtzi Armendariz alkateak. Egileak herri-

ko gazte batzuk diren “susmo nahiko kontrastatua” dute.

Kalteen harira, egileak kontzientziatzeko asmoz udalak ateratako oharrek ez dute egoera konpondu, eta, ondorioz, beste bide bat hartu dute: gazteekin eta gurasoekin aurrez aurre egotea arazoari konponbidea jartzeko, lehen pauso moduan. Joan zen asteko udalbatzarrean eman zuten asmo horren berri.

Astelehen arratsaldean 6-17

urte arteko herriko gazteen gurasoak batzar batera deitu zituzten kultur etxean. Batzarrak helburu bi zituen. “Bate-tik, aurrez aurre azaldu gura genien zer gertatzen ari den, gurasoek rol inportantea dutelako gazteen heziketan. Gazteekin zuzenean berba egitea ere gustatuko litzaigukeela azaldu gura genien. Gazteekin egon aurretik, gurasoei gure asmoen berri ematea garrantzitsua

dela uste dugu, jakinaren gainean egon daitezen”, azaldu du Otxandioko alkateak. Horregaz batera, aurrerantzean antzerako ekintza bandalikorik gertatzen bada, bestelako neurriak hartzea hausnartuko dutela helarazi zien. “Gure mugara heldu garena ohartarazi gura dugu, eta gazteekin eta gurasoekin berba eginda egoera konpontzen ez dela ikusten badugu, beste neurri batzuk hartzea baloratuko dugula”, dio.

Gazteekin eskolan

Gazteei euren mezua helarazteko modurik “naturalena” eskolara joatea dela iruditzen zaie.

“Gazteekin zuzenean berba egitea inportantea dela uste dugu, eta naturaltasunez egon gura dugu eurekin. Baliteke udaletik gehiago egin ahal izatea egoera konpontzeko, eta herriko aisialdi eskaintza nahikoa ez izatea.



“Egoera konpondu ezik beste neurri batzuk hartzea baloratuko dugu”

URTZI ARMENDARIZ

Ez dakigu, baina gure ikuspuntua plazaratu eta euren jaso gura dugu modu naturalean”, adierazi du.

Birziklapena ondo egiteagatik hobariak ematea aztertuko dute

OTXANDIO J.D.

Azken udalbatzarrean ordenantza fiskalak behin-behinean onartu dituzte. Zaborren tasa %10 igoko dutela da aldaketa bat. Gasteizko Fundis tratamendu plantak tona bat zaborreko kobratzen duen zenbatekoa igo du beste behin, eta horrek Gorbeialde Partzuergoari eta berau osatzen duten herriei eragiten die. Horregatik izan da igoera. Udalak, etorkizunera begira, herrian sortzen den zabor kopurua gutxitzeko eta birziklapena indartzeko apustua egin du eta, ildo horretatik, ondo birziklatzen duenari zaborren tasetan hobari bidez laguntzea hausnartzen ari direla azaldu zuen Armendariz alkateak udalbatzarrean. “Bide desberdinak daude eta horiek aztertzeke konpromisoa hartu dugu. Urte amaierarako proposamen bat prest izatea gurako genuke”, azaldu du.

Saltoki berriek, tasarik ez Ordenantza fiskalek, oro har, KPIaren arabera igoera izango dute, salbuespen batzuekin. Esaterako, saltokiak irekitzeagatik ez dute tasarik kobratuko. 150 euro zen aurtentzen arte. Komertzioen etorrera sustatzea da helburua.

Ondasun Higiezinaren Zergan iazko balioei eutsi diete. Katastroaren eguneraketaren harira jarritako errekursoak ebazteke daude oraindik. Aldundiaren aldetik “informazio eta kolaborazio falta” dagoela salatzen alkateak.

DA! ABENDUAREN 6tik 10era
52. DURANGOKO AZOKA

#52DA #SormenarenlurraldeaDA
www.durangokoazoka.eus

**DURANGALDEKOA ZARA?
SORTZAILEA?
LAN BERRIA ARGITARATU DUZU?**

**DOAN DURANGOKO AZOKAN
SALTZEKO AUKERA DAUKAZU**

Eskatu informazioa gerediaga@durangokoazoka.eus helbidean

IURRETA M.O./A.B.

82 urte zituela hil zen, astelehenean, Julen Kaltzada euskaltzalea, Iurretan hainbat lagunek maitatua. Frankismoan Burgosko prozesuan epaitua, preso egonikoa, AEK-ko burukide ohia, euskara irakaslea, idazlea... Gizon eta militante polifazetikoa izan da Julen Kaltzada busturiarra (1935-2017). Bere memoriekin liburu bat argitaratu berri zuen, *Umezurtzen aberria* (Txalaparta), eta duela astebete Iurretan egon zen bere lagunei aurkezten.

Julen zapatuan agurtuko dute, Busturiko Andra Maria elizan, 17:00etan hasiko den hileta-elizkizunean. Ondoren, omenaldi zibila egingo diote zortzi hamarkadako ibilbidean zehar alboan izan dituen senitarteko, lagun eta herrikideek. Iurretan zituen lagunak ere bertara joango dira.

Bihotzeko arazoekin zebilen Kaltzada. Lehendik ebakuntza egina zioten, eta egun hauetan

Bihar agurtuko dute Kaltzada, Iurretan hainbat lagunek maitatua

Busturiko Andra Maria elizan izango dira hileta-elizkizunak, 17:00etan



Montosten egindako 'Umezurtzen aberria' aurkezpenean liburuak sinatzen egon zen Julen Kaltzada

beste bat egitekoak ziren. Dimekan joan zen ospitalera, eta astelehen goizean hil zen.

Iurretan abade

1964tik 1969ra Iurretan abadea izan zen Kaltzada. Bakixan eta Oromiñon ematen zuen meza, eta hartu-eman handia zuen bertakoekin. 1969an, beste lau abadegaz batera, torturen kontrako gose greban parte hartzea-gatik hamar urteko zigorra ezarri zioten. Iurretan lan handia egin zuen eta oso maitatua zen herrian, Mikel Sopolana bere lagunak gogoratu duen lez. Herri Gaztedi mugimenduan ere aritu zen lanean, eta bertako ikastolako eta alfabetatze eskolako sortzailetariko bat ere izan zen.

Bere bizipenak batzen dituen liburua Montosten ere aurkeztu zuen Kaltzadak; 50 bat lagun batu ziren. Liburua finantzatzeko ere, 95 lagunek egin zuten diru ekarpena. Bere memoriak idatzita geratuko dira, eta hainbat iurretarren bihotzetan ere bai.

“Lan istripu segida eta kaleratzeak” salatu dituzte ELAk eta LABek Smurfit enpresan

Enpresako ordezkariak azaldu dutenez, sindikatuek esandakoak “ez datoz bat errealitateagaz”



Langile Batzordeak deituta, elkarretaratzera egin zuten enpresaren aurrean astelehenean, 12:30etik 13:30era.

IURRETA A. Basauri

Azken hilabeteetako “lan istripu segida eta kaleratzeak” salatzeke, protesta egin zuten Smurfiten Enpresa Batzordeak

deituta —ELA eta LAB—. Uztailean gertatutako lan istripu “larria” nabarmendu dute. “Bajan eta egoera larrian dago oraindik langilea, eta horri bes-

telako lan istripu segida gehitu behar zaio”. “Saihestu” daitezkeen istripuak direla uste dute, neurri zuzentzaileak ezartzera koan “hutsuneak” daudelako.

Horregaz batera, “irizpide objektiborik gabeko” azken kaleratzeak salatu dituzte sindikatuek, “tratu malkartsu eta diskriminatzailea emanez” gauzatutakoak. Maiatzean izan zen eta argitu gabe dagoen kaleratze “traumatikoa” aipatu dute. “Kontratua eten dio enpresak langileari, gure ustez modu iruzurrezkoan”. Diotenez, “zigortu gura diren gertaerak ez ziren lan eremuan gertatu, eta kaleratu baino lehen enpresak bazuen aukerarik beste bide bat hartzeko”. Irailean beste langile bat kaleratu izana ere salatu dute.

Istripuak eta kaleratzea ukatu gabe, sindikatuen esanak “errealitateagaz ez datozela bat” diote Smurfiten ordezkariak. Probaldia gainditu ez zuela-eta kaleratu zutela langile bat irai-

lean esan dute, eta maiatzeko kaleratzea argitzeko ahozko bista laster abiatuko dela. Uztaileko istripuaren ondoren, berriz, ikerketa “zorrotza” egin zela nabarmendu dute. “Gertatu zena ikertzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak jartzeko ardura hartu genuen, berriro ez dadin gertatu”. Udan bigarren lan istripu bat ere egon zela aitortu

Maiatzean izan zen, eta argitu gabe dagoen kaleratze “traumatikoa” aipatu dute sindikatuek

dute. “Langile hark sorbaldan hartu zuen mina, baina ez zuen laneko bajarik hartu, praxi txar baten eraginez gertatu zen”.

ELAk eta LABek gogoratu dute baita ere Smurfiten zazpi enpresa dituela azpikontratatuta, “enpresaren egiturazko lanak betetzeko”. Salaketa sartuta dago Lan Ikuskaritzan.

ALBERDI
HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Aurrekontu parte-hartzaileetan gazteen %58k eman dute iritzia

Ekintza planean batutako neurriei lehentasunak jarri dizkiete gazteek



2018ko aurrekontu parte-hartzaileak lantzen dabilta Elorrion.

ELORRIO M. Zuazubiskar Azken urteetan Gazte Diagnostika lantzen egon ostean, datoren urteko aurrekontu parte-hartzaileak gazteekin lantzen dabil Elorrioko Udala. Hori horrela, herriko ikastetxeekin elkarlanean, herriaren erroldatuta dauden 12 eta 20 urte arteko 620 gazteetatik 360k parte hartu dutela jakitera eman dute gobernu taldeko kideek; gazteen %58k zehazki. Udaleko kideek esan dutenez, “oso pozik” daude gazteen parte-hartzeagaz.

Elorrioko Udaleko kideek Gazte Diagnostika osatu eta ge-

ro, diagnosi horretan ondorioztatutako neurriak ekintza plan batean batu zituen udalak. Behin ekintza plana burututa,

Herriaren erroldatuta dauden 12 eta 20 urte arteko 620 gazteetatik 360k parte hartu dute

bertain batutako neurriei lehentasunak jarri dizkiete gazteek. “Benetan pozik gaude jasotako erantzunagaz, Amestutako Elo-

rrio eratzeko ekarpen eta iritzia ugari jaso ditugu eta gazteen eskutik. Gainera, udalaren eta gazteen arteko distantzia ahalik eta txikiena izatea gura dugu, eta, horretarako, komunikazio bide berriak jorratu ditugu”, adierazi du Idoia Buruagak.

Aurrekontu zirriborroa

Bestalde, atzo, Gobernu Taldeko kideek datorren urteko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu zieten herritarrei. Batzar horretan, udaleko kideen helburua elorriarren iritzia jasotzea izan zen.

Gazteen orri markagailu lehiaketa, abian

ELORRIO M. Z.

12 eta 18 urte bitarteko gazteen-tzat orri markagailu lehiaketa jarri du martxan Elorrioko Udalak. Abenduaren 8ra arte dago lanak aurkezteko epea, eta lehiaketan parte hartzeko, herriaren erroldatuta egotea edo Elorrion ikasten egotea beharrezkoa dela adierazi dute.

Lehiaketako gaia Elorrioko Udal Liburutegia da, eta irabazlearen berri abenduaren 15ean emango dutela jakitera eman dute.

Ardo dastaketa egin gura dute Argintxun

IZURTZA J.D.

Argintxu elkarteko batzordeak ardo dastaketa antolatzea proposatu du abenduaren 1era-ko, 19:00etan. Hainbat ardo probatzeko aukera egongo da. Izen-ematea Argintxu elkarteko atean jarri duten orrian egin daiteke; baita elkarteko buzoia-aren bidez ere (10 euro). Herritar denei irekita dagoen dastaketa da eta interesatuta dauden denek parte hartu dezakete. Izena emateko azken eguna azaroaren 23a izango da, datorren aste-ko eguna, hain zuzen.

SEI HANKAKO MAHAIA

PILAR RIOS RAMOS
PSE-EE



Indarkeria matxista emakumeen artean lehen heriotza-eragilea

Hiltzen gaituzte, bizirik gaudela behin eta berriz hiltzen gaituzte. Aste honetan bertan, “aita” batek 2 urteko alaba hil du, lepoa moztu dio, amaren kontrako mendeku gisa. Kontu asko, kontu garrantzitsu asko aldatu behar dira azaroaren 25eko ekintzak gehiago antolatu behar ez izateko. Esate baterako, emakumeen kontrako indarkeria ez izatea munduko emakumeen artean lehen heriotza-eragilea, eta 2017an 109 egun gehiago lan egin behar ez izatea urtean gizon batek kobratzen duen diru berbera jasotzeko, edota hedabideetan emakumezkoen kirola ikusezina ez izatea. Eta abar eta abar. “Lau gaztetik bati normala iruditzen zaio harremanetan emakumeen kontrako indarkeria egotea”. Zerbaitekin egiten du huts! Hezkuntza hobea lortu behar dugu, premia ez ezinbestez (etxeetan, ikastetxeetan, hedabideetan), gizarteratzeko eredu patriarkala hausteko. Kontzientziario gehiago behar da, indarkeria matxistaren mota desberdinei buruz. Gogoan izan behar baitugu ez direla bakarrik kolpeak. Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako Herritarren Ituna jarri dugu abian; haren bidez, biztanleriako sektore guztiak eta instituzioak tartean sartu eta kontzientziatu nahi ditugu. Iaz hasi ginen, eta gero eta gehiago gara. Bestalde, genero-ikuspegia sartzan ari gara udal-proiektu eta -aurrekontuetan, eta urte asko daramatzagu ahalduntzeko ikastaroak eskaintzen Andragunean. Hain matxista izango ez den gizarte baten alde aritzea genero indarkeriaren kontra aritzea baita.

DURANGALDEA ASTEON

26 gune berdeko sare bat sortu gura dute

DURANGO > Udalak 26 gune berde identifikatu ditu herrigunean, eta horiek sare batean lotzea eta ibilbideak sortzea da asmoa. Herritarrekin tailerrak egingo dituzte abenduan, euren iritzia jasotzeko. Parte hartu gura duenak azaroaren 24a baino lehen eman behar du izena: bulegoteknikoa@durango.eus.

Zahar-egoitza aurreko plaza asfaltatu dute

OTXANDIO > Otxandioko Udalak zahar-etxe aurreko plaza asfaltatu du, bertako langile eta erabiltzaileen eskariz. Orain arte egon den galtzada-harriak irisgarritasuna zailtzen zien gurgil-aulkian dabiltzanei edo ibiltzeko arazoak dituzten pertsonei. Irisgarritasuna hobetzeko bota dute asfaltoa gune horretan.

Trañabarren kaleko zebrabidea goratu dute

ABADIÑO > Abadiñoko Udalak Traña-Matienako zebrabide bat goratu du Trañabarren kalean, eskola aurrean, kale horretan dabilzan autoak astiroago ibili daitezten. Jose Luis Navarro alkateak adierazi duenez, zebrabide horretan istripuak egon izan dira autoak arinegi ibiltzen direlako.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
astekaria 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Herria dugu arnas

ETak borroka armatua bertan behera utzi eta ia sei urte bete direnean, armagabetzea burutu eta lau hilabetera nahiz eta euskal herritarren gehiengoak gatazkaren ondorioak gainditu behar direla dioen, oraindik ez dago preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emango dion bide-orri adosturik. Estatuaren immobilismo eta xantaia-jarrera gotortua ahultzeko (eta hauen babesle autonomistak biluzteko) ekimen berri bat abiarazi dute Ipar Euskal Herriko kolore orotako eragile, hautetsi eta Euskal Elkargoak berak, presoon auzia konponbidean jartzeko aldarria bere eginez. Azaroaren 16an euskal preso politikok gauzkatzen 21 kartzela frantsesetako zuzendariekin eta inguruko eragile politiko eta sozialekin elkarrizketatzea helburu duen Kartzela Itzulia hasiko du Iparraldeko eragile ordezkariak, Pariseko abenduaren 9ko manifestazioarekin amaitzeko. Hori dela eta, EPPK-k herritarrek burutuko duten ekimen hori borrokaldi ba-

tekin indartzea erabaki du, beti ere Herriarekin bat eginez eta kalea-presoa loturak estutzeko asmoz: azaroaren 16tik aurrera EPPK-ko kide guztiok EHratze eskaerak berrituko ditugu. Iparraldeko ordezkariak Moulins-eko zuzendaritzarekin bilduko den egunetan, azaroaren 22an eta 23an ez gara ziegetatik irtengo eta espetxeko janaria errefusatu dugu, eta azaroaren 24an baraualdia egingo dugu. Abenduaren 9an Pariseko kaleak betetzeko ikustaldi-greba egingo dugu. Hori dela eta, irakurleoi, zuek ere Iurdan Martitegi izena duen facebook orrian zintzilikatuta dagoen idatzia jaitsi, eta eragile eta erabaki guneetan presio egiteko asmoz gutun bidalketa masibo batez zuen ekarpena egitera dei egiten dizuet, eta, noski, Pariseko karririk euskaldunetz betetzera gonbidatu. Animatu eta parte hartu! Izan gaituzten denok Bakegile! Guztion ahaleginarekin emango diegu amaiera sakabanaketari eta deserriratzeari. Abenduaren 9an, denok Pariser! / **Iurdan Martitegi Lizaso** (euskal preso politikoa)

 **Kultura**

“Katalanak baino askoz rockeroagoak gara gu”

Askotan jo du Gatibuk Plateruenean, baina inoiz ez bi gauz jarraian, eta sarrera guztiak hainbat aste lehenagotik daude salduta.

> MUSIKA

lazko Durangoko Azokan Aske Bizi Aske Maite kaleratu ostean, kontzertuetan beratu aurkezten aritu dira gernikarrak urte osoan. Plazetan zein aretoetan, jarraitzaileek laukote gernikarraren kontzertu bakoitza azkena balitz bezala bizi dute. Plateruenean arituko dira gaur eta bihar, eta bi kontzertuetarako sarrerak duela asteak agortu ziren. Bertan elkarrizketatu du Ilaski Serranok Alex Sardui.

Ilaski Serrano: Galdera gaitzat, hasteko. Nola definitzen duzu zure burua? Nor da Alex Sardui?

Alex Sardui: Alex Sardui kuadrillako beste bat baino ez da; musika munduan, berriz, Gatibuko abeslaria naiz, gehiago barik.

Azaldu kanpoko bati zein hizkuntzatan abesten duen Gatibuk. Zergatik hau guztia?

Zein euskara motatan abesten dugun esateko, lehenbizi argitu beharko litzaiokie Euskal Herrian zazpi euskalki daudela. Guk bizkaiera aukeratu dugu abesteko, gurean den legez.

Bizkaiera. Aurreiritzi askori aurre egindakoak gara, bai bata eta bai bestea. Momentu honetan, baina, posizio eroso batek gabiltzala esango nuke.

Bizkaiera duela 15-20 urte baino onartuago dago gaur egun, eta hori bizkaitarrok dugun burugogorkeriari esker dela uste dut. Egund, gure euskara edozein lekutan edo mediotan erabili dezakegu.

Noiztik abesten duzu?

Betidanik. Familian beti eman digute aukera. Ez dakit noiztik abesten dudana, baina badakit aitzak kasete batean grabazio bat duela, nik hiru urte nituenekoa, eta bertan abesten agertzen naiz.

Ahotsa behar da abeslaria izateko; zuk badaukazu Eszenatikian gainean egoteko behar den karisma hori ere.

Bai, hori horrela da. Eszenatikian, norberak ez badu aurrera egiten, jendea [ikusleengatik] da aurrera egiten duena, eta orduan atzera egiten du abeslariak. Jendeak aktibitatea behar du, zerbait esan edo transmititzen duen norbait. Antzerkian ikusten da hori asko; gaitasun hori dute antzezleek, eta horri esker sartzen zara hainbeste obran.

Ez diot bilatu duzunik, baina oso ezaguna zara Euskal Herrian?

Lehen ez gintuen inork ezagutzen, baina, orain, bai. Euskal Herriko edozein lekutara joan eta jendeak ezagutzen nau.

Ze garrantzi du Plateruena lako espazio propioak edukitzea? Topagune bat dira artistentzat eta ikusleentzat.

Ez dago parekorik. Esango nuke Euskal Herriko antzokiak gako direla kaleko kultura salbatzeko. Euskal giroan mugitzeko, primerakoak dira.

Inbidia ematen dizute gazteek?

Nortasuna galdu dute gazteek. Lehen, kontzertuetara etortzen ginenean, zoramena izaten zen. Ez zen existitzen kontzertuak ez

“*Duela 15-20 urte baino onartuago dago bizkaiera. Burugogorkeriari esker lortu dugu*”

“*Antzokiak gako dira kaleko kultura salbatzeko. Ez dago honen parekorik*”



Alex Sardui

Abesten txikitatik dabilen arren, Exkixu taldeagaz egin zen ezagun. Gatibugaz zazpi disko kaleratu ostean, esan daiteke sasoi betean dagoela taldea



ziren beste ezer. Orain, berriz, neurtuago ikusten ditut, itxura eta horrelakoak zaintzen. Hori askatasuna murriztu delako da. Zentzu horretan, lehen oso libreak ginen. Gure gurasoek gehiago gozatu zuten horretaz, eta gure aitita-amamek ere bai.

Zubi lana egiten duzu belaunaldi gazteago eta zaharragoen artean. Musikari zaharrek inoiz zaitugu telebistako galetan, eta, aldi berean, azken diskoan musikari gazte inguratutik. Gugaz ere horrela egin zuten. Bakoitzak bere egiteko modua

duen arren, beterranoekin asko ikasten da. Gazteekin egotea ere asko gustatzen zaigu. Talde gazteak oso onak dira, musikalari oso preparatuta datoz, baina ez dute lehengo presentzia kallean edo irratan; guk hor sartzen lagundu gura dugu. Lehen



Mikel Ezkerro. Goiena.

Euskadi Gaztean [irradi katea, Serrano bertako aurkezlea zen] egiten zenuten bezala, adibidez, maketa lehiaketa eginda. Hori oso garrantzitsua zen euskal taldeentzat.

Hau nire gogoeta da: gutxiago falta da ametsak betetzeko. Lehen pentsatzen nuen bide luzea geratzen zitzaigula, eta horrek ematen zuela indarra. Gazteak hori du, eta behar du. Gaztetatik hori kentzen badiotzu gazteari, 20 urteko zahar bat izango duzu, eta hori ez da ona, ez musikartzentzat, ez beste edozein arlorentzat. Ez da ona kateak jartzea. Gazteak imajinazioa du, gaitasuna du gauza estratosferikoak pentsatzeko, eta hori ezin da geratu.

Utopiarako, mundua aldatzeko...

Gure seme-alabek hori egin behar lukete, gauza berriak atera. Nahiz eta guk pentsatu 'Joe, hori astakeria bat da'. Horri forma ematen badiote, esperientziagaz ametsak betez joango dira. Ametsa aldaketa da.

Zalantza barik. Bide horretan, gakoetako bat baikortasuna da eta zuk hori transmititzen duzu. Zu pixka bat ezagututa igartzen da, barre egiteko moduan. Pertsonalki oso momentu txarrak bizi izan arren, beti eduki duzu idarra aurrera egiteko.

Ez da askorik behar izaten behea jotzeko. Sarri, pentsatzen ez duzun lekutik dator disgustoa. Eta nola preparatu? Aurre-

“*Jendeak zure letra hori berea balitz bezala hartzea gauza oso handia izaten da*”

“*Noizbait musika uzten badut, horren falta sumatuko dut gehien*”

tik kolpea hartuta. Zuk ere bada-kizu, gure moduan aurpegi apur bat dugunok kolpe handiagoak hartzen ditugula. Indar gehiago behar izaten dugu zulo horretatik irteteko. Baina, ikasi egiten duzu, eta zulo horiek ez dira hain sakonak izaten, eta zerua ere ez dago hain hurbil. Neurria hartu behar da, eta ahal denean umorea atera. Eta ezin denean, zugaz elkartu eta barre batzuk egin (barrez)! Umorea duen jendea gehiago bizitzen da.

Gu hemen Gatiburi buruz berba egiten ari gara, baina, ze pozik bizi ginen gu Exkixu entzuten! 'Aurkitu zintudan irrifartu', zenioten.

Hori gure lehenbiziko singlea izan zen, duela 25 urte!

Oso modernoa zen bere garairako. Garai horretan sartu zen trikitixa popean ere. Talde batzuek hor egin zenituzten keinuak gaur egun ezagutzen denari ateak zabaltzeko.

Bai, begira Huntzak zelako arrakasta duen trikitixa jota. Musikkalki ezberdina da, baina bertako instrumentua ere erabiltzen dute. Horrelako taldeak behar dira. Eta neska gehiago ere bai. Taula gainean, oso potenteak izaten dira neskak.

Zer duzue abeslarietarako, lau akorde hartu, lau berba idatzi eta entzulea engantxatzeko?

Musikaren magia da hori. Euskal Herrian oso exigenteak gara letrekin. Letra bat iristen zaizunean, ez duzu ahazten. Guri hori gertatu zitzaigun Kortatugaz, Hertzainakegaz eta sasoi horietako taldeekin. Jendeak zure letra hori berea balitz bezala hartzea gauza oso handia da. Taula gainean zaudela, jendea abesten dagoenean, sekulako momentua da. Agirretxe errealeko jokalariek esan zuen, futbolariak goi sartzean emozioak goia jotzen zuela, topea dela, eta arrazoia du.

Klimax hori lortzen denean, zabaldu egin behar da, ezin delako kontrolatu. Noizbait musika uzten badut, horren falta sumatuko dut gehien.

Musturrek sartunde zabiltza leku denetan. Busti egin behar gara iritzi emaille moduan?

Ezagunak bagara, busti gare-lako da. Bustitzea zer da, iritzi bat edukitzea? Kataluniari buruz? Askatasunari buruz? Musikariak taulara igotzean, edo kazetariak irradian mikrofonoa hartzen duenean, bustita dago jada, jendeak horrela ulertu ez arren.

Jarraitzen duzu Katalunia? Lotura estua duzue bi herrietako musikariek?

Bai, estilo ezberdinetan, baina bai. Gu askoz rockeroagoak gara. Lotura existitzen da. Katalunian asko disfrutatzen da musikaz, baina hemen pasioa daukagu. Han talde nagusiak 1.200 lagun sartuko ditu aretoan. Hasierako taldea ikusten, berriz, 300 egongo dira. Hemen 800 sartuko ditu talde nagusiak, eta 700 egongo dira hasierakoa ikusten. Hori hemen bakarrik gertatzen da.

Aske bizi, aske maitte. Maitasuna da mundua mugitzen duen motorea?

Aske bizitzea eta aske maitatzea beharrezkoa da, norbera hazteko eta irizpide batzuk edukitzeko, polita da hori. Baita inguruan dagoena ezagutzeko ere, eta pentsamendu ezberdinak jakiteko.

Euritan dantzan, busti arren.

Hori da jokoa, eta horregatik egin genuen letra hori. Garai horietan, gainera, krisiak goitik behera kolpatu gintuen. Azken finean, euria egin edo elurra egin, aurpegi ona jarri behar da. Euskaldunok onak gara hori egiten. Hori transmititu gura genuen, euria egin arren, dantzan egingo genuela, pozik.

Atzera begiratu, eta 'Ze ondo pasatu dugun!' da, ezta? Aurrera begirata, zer ikusten da?

Egindakoak balio bat du, ondo, baina eginda dago jada. Noizbait, jubilatzen garenean, jendeak esango du zer egin dugun, ez nik. Aurrera begira egin behar da lan. Bertan dugu, adibidez, Durangoko Azoka, eta hori oso garrantzitsua da euskal sortzaileentzat. Lan egiterakoan data finko bat edukitzeak, eta horren arabera lan egin behar izateak, jarraikortasun bat ematen dizu. Lan egiterakoan epeak markatzea ondo datorrela uste dut.



2002an sortu zenetik, laukote moduan aritu da Gatibu taldea.



Abestiak nola nahastu ikasten, Zigor DZren gidaritzapean

Hamar bat lagunek eman zuten izena; martitzenean hasi zen ikastaroa



Talde txikitik aritzeak erraztu egiten du guztiek mahaian probak egin ahal izatea.

> MUSIKA Aritz Maldonado (Soinu eta argi teknikaria izateko eta *Nola antolatuko kontzertu bat*) arrakasta ikusita, ildo bereko tailerrak eskaintzen jarraitzea erabaki dute

Plateruenean. Horrela, Zigor DZ (Selektah Kolektiboa, Esne Beltza) disko jartzaile entzutetsua-

ren gidaritzapean, DJ izateko oinarritzako ezagutzak garatuko dituzte sei saio dituen ikastaroan. Saioak Elorrioko Ateneon (martitzenetan) eta Plateruenean (eguztinetan) dira.

Ikastaroa praktikoa izango da gehien bat, eta oinarritzako ezagutzak landuko dira. "Zigorrek berak erabiltzen duen mahaia erabilera, abestien nahasketak nola egin, eta hainbat irizpide erakutsiko ditu", azaldu du Ihintza Orbegozo taillerreko arduradunak. Zigor DZ-k biniloekin jartzen du musika, eta horrek are erakargarriago egiten du tailerra. "Zerrenda bat sortu eta play botoiari eman beharrean, sortzaile lanak egiten ditu, eta interesgarriago egiten du horrek", gehitu du Orbegozok.

Hamar bat lagunek eman dute izena ikastaroan, eta giro lagunkoi horretan jarduteak errazago egiten ditu saioak. "Kopuru egokia da materiala-gaz guztiek probak egin ahal izateko", bukatu du.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN ZATIKA

Kultura teknikaria



Unibertso paraleloak

Domekako bertso txapelketako saioa espejismoa izan zen. Ezin gara euskaraz bizi. Horren parean dugu beste kultur gertakari arrakastatsu bat; *8 Apellidos Vascos* umorera makurtu beharra dugu? Kallean goazela, inguratzen gaituen dena da arrotza: hizkuntza, irudiak, Shakeri buruzko berria behin eta berriz irratian (erdal komunikabideen mundu ikuskeratik begiratu beste erremediorik ez dugu). Hizkuntza minorizatuko hitzuna izatea borroka da: egunerokotasuna zapalkuntzatik aldarrikapenera eta buelta.

Joaten dira urtean zehar loretxoak jaiotzen. Baina horien oihartzuna desagertzen da memoria kolektibotik Ezkurdin *La Orquesta Nuevo Talismán* lehen akordeekin.

Bertako produktuak babestu eta denda txikiak gordetzeko adierazpen instituzionalaren unibertso paraleloan bizi dira Landakogune alokatu eta merkatu ibiltari erraldoiaren antolatzaileak. Herri-gintzak mundu ikuskera globala izanda, gertukoan egiten du lana eta ez kontrakoa. Jendeari Rafaela Carra gustatzen zaio-eta. Andra Mariko ikuskizunean egongo ziren bi mila lagun, Mendiluze txalotu zutenak beste. Ondarea babesteko gordetzen den bezala, %1 gorde beharko da udal aurrekontuetan euskal kultura babesteko? Herri indigenak exotismoz gordetzen dira eta horretara goaz.

Amuriza eta Elortza, finalerako aukeragaz

Seigarren dago Elortza, zortzigarren Amuriza



Miren Amuriza bertsolaria Durangoko saioan.

> BERTSOLARITZA A. M. Saillkapeneko lehenbiziko zapiak pasatzen dira finalera. Beraz, aukerak dituzte Miren Amurizak eta Igor Elortzak Barakaldoko BECeke finalean egoteko. Finalerdien bigarren txanda hasiko da asteburu honetan; durangarrak 703 puntu ditu; berriztarrak, oster, 678,5. Seigarren eta zortzigarren dira saillkapenean, hurrenez hurren. Azaroaren 26an lehiatuko da Igor Elortza, Donibane Lohizuneko kanporaketan. Amurizaren saioa, berriz, abenduaren 2an izango da, Iruñean.

'Heriotza bikoitza' estreinuko, gaur, Azpeitian

> ANTZERKIA A. M.

Eneko Sagardoyk ez du atsedetik hartzen. Artista durangarrak *Heriotza Bikoitza* antzezlan estreinatuko du, gaur gauean, Azpeitian (Gipuzkoa). Obra, bertan egingo den Euskal Antzerki Topaketak jaialdiaren barruan antzeztuko da, 21:30ean.

Sagardoygaz batera, Miren Gaztañaga antzezlea da protagonista. Heriotzari eta bizitzari buruzko hausnarketa planteatzen da bertan. "Bizirik hiltzeari eta heriotzaren ostean zabaltzen diren ateei" buruzko gogoeta da, Ze Onda konpainiaren arabera. Kontzeptua Jon Ander Alonsorena da; sorkuntzaz, berriz, Creación Colectiva arduratu da.

Emanaldia 'We are like you' proiektuarentzat

> MUSIKA A. M.

Zezipi Deunaren egunaren ospakizunetarako kontzertua antolatu du Berriotxo abesbatzak. Juan Carlos Irizarrek eta Pispillu eta Berriotxo abesbatzek emanaldia eskainiko dute Santa Anako kontzertu kaperan. Sarrera bost euroan salduko da, eta bertan batuko den dirua *We are like you* proiektuarentzat bideratuko da.

Irizar musikaria da *We are like you* proiektuaren sustatzaile nagusietako bat. Liberial (Afrika) osasun mentala tratatzea eta ebolaren birusak erasandakoei laguntza ematea da ekimenaren helburua. Kontzertua bihar, azaroak 18, izango da, 20:00etan.

Los Visitantes
Khea Ziater

Azaroaren 19an
19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

DAVID @UAPO
AZAROAK 19
19:00etan
DAVID GUAPO
BAKARRIZKETA

ber bertan
AZAROAK 23
19:00etan
BERBERTAN MARI LUZ ESTEBAN
BERBALDIA

Porco Bravo
AZAROAK 24
22:00etan
PORCO BRAVO +
MOCKER'S
KONTZERTUA

AZAROAREN 25a,
**EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA**



EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIARI EZ

*Tratu txarren biktima diren emakumeentzako
arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa
946 200 492*



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



“Gaixotasunaren edozein sintoma estigma iturri bihurtzen da, ezkutatu beharrekoa”

‘Bularreko minbizia eta jabekuntza’ hitzaldia eskainiko du Ana Porroche Escudero, Elorrion

> ELKARRIZKETA A. Basauri

Bularreko minbiziaren eta genero biolentziaren arteko erlazioa azalduko du Ana Porroche Escudero antropologo feministak datorren azaroaren 21ean, Elorrion. Udaletxeko aretoan emango du hitzaldia, 18:30ean. Bularreko minbiziaren inguruko erakusketa ere jarri dute ikusgai Iturri kultur etxean.

Nola bizi dituzte andre bularreko minbiziaren ondorioak? Bularreko minbiziaren gaur egungo diskurtso nagusia zurrunegia da. Horregatik, arriskua du bat ez datozen pertsonak isilarazteko, baztertze edo estigmatizatzeko. Hainbat kolektibo ikusezin egiten ditu: lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak (LGTBI), metastasia dutenak eta emakume nagusiak. Gaixorik dauden edo bizirik irten direnen proposatutako ereduak sexualitate zurrun eta eskurazina islatzen du, eta eredu horretan argal egotea, hiperfeminitatea, heterosexualitatea,



NIHR CLAHRC NWC, Division of Health Research, Lancasterreko unibertsitatean egiten du lan ikerlari moduan Porrochek

gaztetasuna, osasuna eta gorputz-simetria dira ideala. Horrek erotu egiten ditu emakume heterossexualak, ez direlako eredu horren barruan sartzen, baina LGTBiak isildu egiten ditu. Bestalde, bularreko minbiziaren kanpaina guztiak andra gazteei daude zuzenduta, nagusiak ikusezin bihurtuz. Paradoxa da, bularreko minbizia izateko arriskua adinagaz batera gora doanean. Gaixotasun hau andra gazteen kontua den kontzientzia faltua sortzen laguntzen dute.

Zein ondorio eragin du horrek? Gaixotasunaren benetakoa ez den irudi bat zabaldu da, eta horren alderik krudelena minbizidun gaixo perfektuaren sindromea da. Hau da oinarrian dagoen ideia: osasunagaz eta generoagaz lotutako arau sozialak betez gero, gaixotasuna kontrolatuko dugu. Andren kasuan, super-emakume bat irudikatzen da, alaia, pentsaera baikorra duena eta jarrera alai eta sexia. Gaixotasunaren edozein sintoma estigma iturri bihurtzen da, ezkutatu beharrekoa.

Kulpa sentimendua sortzen da? Errudun sentitzen dira ideal horretara ezin direlako heldu, eta orduan azaleratzen da gaixo perfektuaren sindromea; ematen

ELORRIO INDARKERIA MATXISTAREN ADIERAZPENEI AURRE EGINEZ!

19 domeka / 20 astelehena

20:00 FILMA: “Una mujer fantástica”. Zuzendaria eta gidoia: Sebastián Lelio.
Arriola Antzokian.

Emakume transexuala izatea indarkeria pairatzea da. Baina Marinak transfobiari aurre egingo dio duintasunez eta bere buruarekiko errespetu itzelagaz.

21 martitzena

18:30 HITZALDIA: “Cáncer de mama y empoderamiento”. Ana Porroche-Escudero.
Udaletxeko Pleno Aretoan.

Bularreko minbiziaren inguruko gogoeta feministak zelan bizi bularreko minbizia positiboki eta duintasunez? Zer irudikapen dugu minbizi mota honetatik pasatzen den gorputz baten inguruan?

23 eguena

19:00 FILMA: “Volar”. Zuzendaria eta gidoia: Bertha Gaztelumendi. Ekoizlea: Emakunde.
Arriola Antzokian.

Genero-indarkeria bizi izan duten 9 emakumek infernu horretatik zelan irten diren kontakutako dute, biktimismorik gabe, eta euren buruak boteretuz.

24 barikua

12:00 Erakunde arteko Durangaldeko emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduketa- eta koordinazio- protokoloaren sinadura instituzionala.
Durangoko Andragunean.

25 zapatua

13:00 HERRI-KONTZENTRAZIOA.
Indarkeria matxistari ez! **Herriko plazan.**

28 martitzena

Durangaldeko Beldur Barik-en bideo-lehiaketaren saridunen iragarpena.
www.elorrio.eus eta komunikabideak.

abenduak 2 zapatua

16:30-21:45 BELDUR BARIK TOPAKETA. Eibarren.
Euskadiko lan saritua jakinarazteaz gain, gazteentzako egitarau ederra antolatu da. Elorriotik autobusa doan.
Deitu udaletxera: 94 657 08 09 edo begiratu www.beldurbarik.org webgunea.

ELORRIOKO IKASTETXEETAN ANTOLATUTAKO EKINTZAK

ELORRIOKO HERRI ESKOLA Azaroaren 9tik “Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu” lelopean hainbat ekintza burutuko dituzte, beldurra zer den eta zer sentiarazten digun hausnartzeko, ipuin, marrazki, bertso, “eraso sexistarik ez” bideo-klipen bidez. Azaroaren 24an pankarta eta puntu morea kokatu dute eskolan, bertsolariari entzun zein bertsoak abestu, eta bideo-klipa ikusiko dute. Ekintzak eskola-komunitate osoari zuzenduta daude.

LOURDESKO AMA IKASTETXEA Azaroaren 25a baino lehenagoko asteetan puntu morea margotuko dute taldeetan, eta emakumeengako indarkeriaren kontrako bideoa grabatuko dute. Azaroaren 24an ikasle-irakasle guztiek morez jantzita argazki erraldoia egingo dute.

ELORRIOKO INSTITUTUA Aurten nerabezeroan “mikromatxismoak” gaia jorratuko dute azaroaren 24an. Gazteenek horren inguruko testuak irakurriko dituzte jendaurrean, solasaldia sustatuz. Eta nagusiek bideoen bidez hausnarketa kolektiboa egingo dute (harreman toxikoak, sare sozialen erabilera, matxismoak hil egiten du...).

TXINTXIRRI IKASTOLA Azaroaren 24an “Tratu onak” lelopean, ikasleek aurreko asteetan landutakoa biziko dute jolas, ipuin, bideo eta abarren bidez. Irakasleek hezkuntzako genero-indarkeria protokoloa jorratuko dute; eta hezkuntza-komunitate osorako “tratu on” en argazkien bilduma prestatuta egongo da; gainera, guztiok morez jantzita, puntu morea irudikatuta argazkia aterako da.

Azaroak 25: Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna

Adierazi indarkeria matxistaren kontrako jarrera puntu morea leihoan jarrita eta... Etorri kontzentrazioa zapatuan, 25ean, 13:00etan!



du gaixo txarrak direla. Paziente perfektua bizirik irauten tematuta dago, eta zuzendu ezineko baikortasunak hilkortasuna ukatzen du. Horrek heriotzari buruzko tabuak indartzen ditu eta ia ez dira ikertzen metastasiaren inguruko zenbait gai —harriztekoa, minbizi horrek milaka andra hiltzen ditu-eta—. Urri arrosaren ospakizunetan pertsona hauek arrotz sentitu daitezke, hilkortasuna sinbolizatzen dutelako. “Borrokak” eta halako terminoek metastasia dutenak estigmatizatzen eta baztertzen ere lagundu dezakete, ulertzen delako hiltzen diren pertsonak galtzaileak direla, ez dutelako minbizi menderatu.

Begizta arrosagaz lotutako kanpainekin kritikoa zara.

Autokritika egiteko garaia dela uste dut. Izan ere, kanpaina hauetan ez da informazio osoa ematen. Mamografia-bahetzearen aldeko informazio partziala ematen da, minbiziaren industriaren urrezko arrautzen oioa delako. Hainbat interes daude atzetik. Bahetze programetan parte hartzeko eta norbera miazteko —lehen mailako prebentzioarako metodoak— esaten zaie emakumei. Baina hilkortasuna jaisteko eraginkortasunaren inguruko eztabaida zientifikoa

“Zuzendu ezineko baikortasunak hilkortasuna ukatzen du”

“Bularreko minbiziaren diskurtso nagusia zurrunezia da”

ez da aipatzen, ezta albo-efektuak ere; tartean, andrei inoiz osasun arazorik eragingo ez lieketen minbizien gain-diagnostikoa eta gain-tratamendua. Beharrezkoa ez den antsietatea, positibo faltsuak eta proba egitean bularreko mina alboratzen dira. Bada beste arrisku bat: mamografia minbiziaren kontrako antidoto moduan kontzeptualizatu da. Hurrengo bisitara arte “salbu” daudela uste dute andrek. Argitu behar den okerra da hori.

Minbiziari aurre egiteko, heziketa eta informazio ereduak aldatu behar dela uste duzu?

Noski. Gogoeta eta gaitasun kritikoa bultzatzen dituen heziketaren eta informazio eredu baten aldekoa naiz, osasunaren inguruan erabakiak hartzeko auto-

nomia errazteko. Horretarako, informazioa zehatza, garrantzitsua eta ulergarria izan behar da, ebidentzia zientifikoan oinarritua. Askotan nahastu egiten dira detekzio goiztiarra eta lehen mailako prebentzioa, adibidez. Oso garrantzitsuak diren kontzeptu oso desberdin bi. Lehen mailako prebentzioak tumorea gorputzean azaltzea saihesten laguntzen du; detekzio goiztiarrak, tumorea ahalik eta azkarren aurkitzea, ez gartzeko eta tratamenduaren inpaktua minimizatzeko. Minbiziaren intzidentzian eta gaixotasunaren bizipenean eragiten duten determinatzaile sozialei buruzko kontzientzia politikoa ere behar da.

Osasun politikak behar dira gizarte hezteko?

Diziplinen eta sektoreen arteko premia osasun politikak behar dira lehen mailako prebentzioan. Osasun publiko neurriak bultzatu daitezke ohitura osasuntsuen alde, baina osasun publiko hori eraginkorra litzateke minbiziaren prebentzioari pentsamendu sistematikoa batetik helduko balio, gizarte zibilagaz eta askotariko departamenduekin sektore arteko aliantzak garatuz askotariko mailatan.



‘Volar’ dokumentaleko kideak Zinemaldiko aurkezpenean.

Indarkeria matxistaren biktimak entzungai, 23an

‘Volar’ dokumentalean jaso dituzte testigantzak

> ELORRIO M. Zuazubiskar Bertha Gaztelumendi kazetariak zuzendutako *Volar* film dokumentala ikusteko aukera egongo da azaroaren 23an, 19:00etan, Arriola Antzokian. Film dokumental honek indarkeria jasan duten bederatzi emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Euren bizipenak partekatuko dituzte, eta gizarteari beraien istorioak plazaratuko dizkiote.

Volar dokumentalaren emankizunaz gain, azaroaren 25aren harira antolatutako egi-

taruan hainbat ekintza aurkitu daitezke. Esaterako, azaroaren 19an eta 20an *Una mujer fantás-*

Elkarretaratzea 13:00etan egingo dute herriko plazan

tica filma eskainiko dute, eta azaroaren 25ean indarkeria matxistak gaitzesteko elkarretaratzea egingo dute, 13:00etan, herriko plazan.

Zaldibar puntu morez betetzeko deialdia

Udaletxean eta liburutegian daude eskuragarri



Emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontzentrazioa, Zaldibarren.

> JAIK A. Maldonado Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunerako, kontzentrazioa deitu du Zaldibarko Udalak. Elkarretaratzea goizeko 12:30ean izango da, udaletxeke plazan. Aurretik, herriko guneak puntu morez betetzeko deia egin du udalak. “Herria puntu morez betetzea nahi dugu, etxeetan, komertzioetan eta beste edozein lekutan ere” azaldu du Batirtze Barrero berdintasun teknikariak.

Azaroaren 24an, berriz, *Volar* dokumentala proiektatuko dute liburutegian. Emaku-

meenganako indarkeria jasan dute bederatzi emakumeren testigantzak jasotzen ditu filme honek.

12-16 urteko gazteentzako graffiti tailerra, azaroaren 26an

Asteburuko egitaraua ixteko, 12-16 urte bitarteko gazteak izango dira protagonista. Berdintasunaren aldeko graffiti tailerra egingo da Gaztelekuan, 18:00tik aurrera.

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 24, BARIKUA
VOLAR dokumentalaren proiektzioa,
18:00etan, liburutegian

AZAROAK 25, ZAPATUA
Emakumeenganako indarkeriaren aurkako
ELKARRETARATZEA Udaletxeke plazan, 12:30ean

AZAROAK 26, DOMEKA
Berdintasunaren aldeko GRAFFITI tailerra,
18:00etan, Gaztelekuan 12-16 urte bitarteko gazteentzat

.....

JASO EZAZU ZURE PUNTU MOREA
Eskuragarri udaletxean eta liburutegian

.....

“Korrika egin gura duen edonork aurkitu dezake bere tokia taldean”

Eguazteneko korrika egitera irteten diren emakumeen taldeko kideak dira



Emakumeen taldeko partaideak dira Libe Alzola, loar Oteiza eta Kattalin Azurmendi.

> ELKARRIZKETA J. Derteano
Azaroaren 25ean bigarren aldia egingo du indarkeriaren aurkako Emakumeen Lasterketak Durangon. Bost kilometroko proba da, eta 17:00etan hasiko da, Ezkurdin. Aurretik, gizon eta gaztetxoek zuzenduriko beste laburrago bat (1,6 km) egingo dute. Durango Kirol Taldeak antolatzen duen ekimena da. Aurten beste ekimen bat ere abiatu dute: korrika egiteko emakumeen taldea. Libe Alzola Berriozabalgaitia (Durango, 1972), loar Oteiza Goiendte (Lesaka, 1988) eta Kattalin Azurmendi Ocea (Durango, 1996) talde horretako kideak dira, eta gustura dabiltzala diote.

Zelan batu zineten taldera?
Libe Alzola: Durangon kartel batzuk ikusi nituen galdera honengaz: ‘Nahi al duzu gurekin korrika hastea?’ Jartzen zuen egunean bertaratu, eta ekimen berria zela kontatu zuten. Esate-

rako, seme-alabaren bat izan ostean kirola alde batera utzita zutenei zuzenduta zegoen. Hain zuzen, horixe zen nire kasua.
loar Oteiza: Lan kontuengatik Durangon bizi naiz astegunetan. Nik korrika egiten dut, baina hemen ez nekien nondik ibili ere. Ez nuen ezagutzen. Duela urte batzuk Lesakan emakumeen talde batean ibili nintzen korrika, eta hemen horrelakorik bazegoen galdetu nien lankideei. Horrela jakin nuen.
Kattalin Azurmendi: Nik txikitant egiten nuen kirola, baina, gerora, ez. Noizbehinka gimnasio-ra bakarrik. Amak emakumeen taldera batzera animatu ninduen. Probatu eta gustatu egin zitzaidan.

Ariketa fisikoa egiteaz gainera, bestelako onurak ere eskaintzen dizkizue?

I.O.: Durangon ez nuen inor ezagutzen eta jende berria ezagutzeko balio izan dit.

L.A.: Nik nire ahizpa taldera batzera konbentzitu nuen. Horrela, astean behin behintzat ikusten dut, eta elkarregeaz egoten gara. Nire lankide ohi batzuk ere taldean daude. Bakoitza bere aldetik batu da eta taldean berriro egin dugu bat. Beraz, hartu-emanak sustatzeko ere baliagarria da.

Virginia Woolfen istorioetan murgiltzeko antzerki lana

‘Una habitación propia’ antzezlan eskainiko du Clara Sanchisek Berrizen

> BERRIZ Markel Onaindia
Azaroaren 25eko ekitaldien harira, antzezlan interesgarri bat ikusteko aukera egongo da Berrizko Kultur Etxean, hilaren 25ean bertan. Virginia Woolfek idatzitako entseguan oinarrituta, *Una habitación propia* obra eskainiko du Clara Sanchis aktoreak. Woolfek 1928an emandako konferentzia batzuk dira edukiaren abiapuntu, eta lan feminista lez deskribatu

1928an emandako konferentzia batzuk dira abiapuntu

izan dute. Literatur munduan emakumeek duten presentzia hausnartzen du, besteak beste.

Sanchisen emanaldia 20:00etan hasiko da, eguneko

mobilizazioen ostean. Izan ere, udalak antolatuta, elkarretaraztea eta martxa egingo dituzte 19:00etan. Udaletxetik Urriaga plazaraino joango dira manifestariak.

Puntu moreak

Bestalde, herriko hainbat gunetan puntu moreak ipiniko dituzte eskuragarri, herritarrek euren etxeetan eta merkatariek euren denetan ipini ditzaten.



Clara Sanchis, Woolfen obra antzeztzen.

azaroak 25

“Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna”

AZAROAK 23, Berrizko Kultur Etxean
19:30 “Nire ahizpa perfektua”. Film-dokumentala

AZAROAK 24, 23:00, Berrizko Kultur Etxean
AZAROAK 26, 19:00, Berrizko Kultur Etxean
“La batalla de los sexos”. Filma

AZAROAK 25
12:15 “Ni neu- Zuzeu” Ana Apika.
Ipuin kontalaria. KulturEtxean
19:00 KONTZENTRAZIO-MARTXA
Udaletxetik Urriaga plazara
20:00 UNA HABITACIÓN PROPIA
Antzerkia. Kultur Etxean

AZAROAK 28
BELDUR BARIK DURANGALDEA 2017
Irabazlearen iragarpena

ABERRIAREN 2
EAE BELDUR BARIK JARRERA 2017.
Lehiaketako sari banaketa.
Topaketa (Eibar) Autobusak doan.
Informazioa: berdintasuna@berriz.eus

PUNTUMOREA, HERRIKO GUNE
HAUETAN ESKURAGARRI:
Udaletxean / KulturEtxean / Ikastetxean / Kiroldegian

Har ezazu puntu more bat eta jarri zure etxeko edo establezimenduko leihoan.

Lagundu Berriz puntu morez betetzen!



K.A.: Nik partaide batzuk ezagutzen nituen, eta beste batzuk ez.
L.A.: Ioar eta Kattalin taldeko batez besteko adinetik behera daude. Neskarik gazteenak dira. Gehienok beteranoak gara, 40 urtetik gorakoak. Kirola apur bat baztertuta genuenok eta berriro hasi garenok. Taldearen hasierako helburua horixe zela uste dut.

Denak batera ala taldeetan banatuta ibiltzen zarete?

I.O.: Talde nahiko heterogeneoa da. Batzuk aurretik korrika ibilitakoak dira, lasterketak prestatzen ibiltzen direnak. Beste batzuek, aldiz, hasieran ez zuten ikusten euren burua 20 minutuan segidan korrika egiten.

L.A.: Ni naiz horietako bat. Ez nuen nire burua 20 minutu baino gehiagoan korrika imajinatzen.

I.O.: Taldeko kideei galdetuta, bakoitzak bere helburu eta arrazoi propioak izango ditu.

L.A.: Eguaztenetan, 18:00etan geratzen gara, Arripausuetan. Taldeetan banatzen gara eta monitorea bakoitza taldeen erritmorra moldatzen da. Gozamina da. Ezinean ikusten bazaitu, zugaz geratzen da. Animatu egiten zaitu eta gomendioak ematen dizkizu. Norbait atzean geratzen bada, beragaz geratzen dira la-



Emakumeen taldea eguaztenean Arripausuetan korrika egitera irteteko prest.

guntzen. Azken batean, aurrean doanak ez du laguntzarik behar.

I.O.: Zerbaiterako motibazioa ere beharrezkoa dela esango nuke. Joan zen astean, azaroaren 25eko lasterketari begira, bost kilometroko ibilbideekin hasi ginen. Minutu bateko serieak ere egin genituen. Hau da, nork bere burua apur bat behartuz aritu ginen. Bakoitzaren motibazioak bilatzen saiatzen dira, eta hori ondo dago.

Nondik ibiltzen zarete korrika?

I.O.: Lehenengo, beroketa ariketak egiten ditugu, elkarregaz.

L.A.: Abdominalak, luzaketak

eta teknika lantzeko ariketak egiten ditugu. Ondoren, korrika irteten gara. Ondoen dabil-tzanak zuzenean Astolaraino joaten dira, eta gainerakoak bigorrian ibiltzen gara. Baina, joan zen astean, denok Astolara joan ginen, Ioarrek esan duen moduan azaroaren 25eko lasterketa prestatzera.

Beste lasterketa batzuetan parte hartu duzue?

L.A.: Nik ez. Niretzat lehenengo aldia izango da. Taldean ez ezik neure kontura ere ibili izan naiz korrika, prestaketa osatzeko. Ea zelan irteten zaidan.

I.O.: Apur bat utzita izan dut, baina, orain gutxi, nire burua motibatzen, hamar kilometroko proba egin nuen Donostian. Joan zen asteburuan Donostia-Behobia pena apur batez jarraitu nuen. Inbidia apur batez. Pare bat aldiz egin dut.

Zelan konbentzitu zenuen taldera batu ala ez, dudatan dagoen emakume bat?

I.O.: Ez dela pertsona konkretu batentzako taldea esango nioke. Adin eta helburu anitzeko jendea dagoela, hainbat monitorea daudela... Korrika egin gura duen edonork aurkitu dezake

bere tokia taldean. Beste mota bateko ariketak ere egiten ditugu. Gainera, eguraldi txarra dagoenean, irteteko arrazoi bat da, motibazio bat. Niri gertatu izan zait. Ordu eta toki bat jarrita dagoenean, zeure burua pixka bat behartzen duzu.

K.A.: Bakarrik bazoaz, nekatzen zarenean geratzeko tentazioa egoten da. Taldean joanda animatu egiten zaituzte, eta errazagoa da.

L.A.: Taldean joanda, erdia nekatzen zarela esango nuke. Benetan.

Azaroaren 25eko lasterketa nagusian emakumeek bakarrik parte hartu dezakete. Zer onura ikusten dizkiozue bereizgarritasun horri?

I.O.: Korrika egiten duten gero eta emakume gehiago dauden arren, oraindik gizona gehiago dira. Beraz, horrelako lasterketak emakumeak korrika egitera animatzeko modua dira. Nahiago genuke hementik urte batzuetara horrelako lasterketarik behar ez izatea eta gizonen eta emakumeen parte-hartzea parean egotea. Baina une honetan ez gaude egoera horretan. Emakumeen lasterketak egoera bisibilizatzeko, jendea sentsibilizatzeko eta emakumeak animatzeko balio du.

Desjabeakuntza tailerra eskainiko dute Abadiñoako gizonaentzat

Gazteenen kontzientziazioan eragitea da udalaren helburua, batez ere



Eskuorriak banatu ziren iazko azaroaren 25ean.

> JAIK A. Maldonado Emakumeen Aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren karietara, zenbait ekimen antolatuta dituzte Abadiñoan. Azaroaren 25ean bertan, kontzentrazioa egingo dute Trañabarren kalean; 12:00etan hasiko da. Azaroaren 29an, berri, Bertha Gaztelumendiren *Volar* dokumentala proiektatu dute Errota kultur etxean. Emanaldiaren ostean, solasal-

dia egingo dute dokumentalean lekukotza ematen duten emakumeetako batzuekin.

Aurten, garrantzia eman gura izan diote udaletik kon-

**Azaroaren 25ean
elkarretaratzea
egingo dute,
12:00etan hasita**

tzientziazioari. Hori dela-eta, desjabeakuntzarako clown tailerra antolatu dute adin guztietako mutilentzat. *Galtzen ikasi* deitzen da tailer berezia, eta Errota kultur etxean egingo da; 10:30-14:00 bitartean izango da. Izen-ematea 24ra arte izango da. Bestalde, Beldur Barik topaketarako autobusa antolatu du Berdintasun Sailak. Eibarren izango da topaketa. Azaroaren 28ra arte eman daiteke izena.

AZAROAK 25
Emakumeenganako
Indarkeria
Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

ABADIÑO

:: Azaroak, 24
Durangaldeko emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko arreta eta koordinaziorako II protokoloaren sinadura ekitaldi itxia

:: Azaroak, 25
12:00 Trañabarren kalea (Matienea okindeagiaren ondoan)
'EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA' Kontzentrazioa

:: Azaroak, 29
18:00 Errota Kultur Etxea **VOLAR** Dokumentala eta solasaldia emakumeen lekukotasunekin

:: Abenduak, 2
16:30 Eibar **BELDUR BARIK TOPAKETA OROKORRA EIBARREN**
Sari banaketa eta tailerrak Beldur Barik jarrerarekin!
Autobusean izen emateko azaroaren 14-28 bitartean www.beldurbarik.org

DESJABEKUNTZARAKO KLOWN TAILERRA
10:30/14:00 Errota Kultur Etxea *Galtzen ikasi* Adin guztietako mutilentzat: Eman izena (azaroaren 24 arte)
berdintasuna@abadiño.org/94 466 94 20

**EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIARI EZ!**

Emakumeentzat zaharalduntze tailerra eskainiko dute Iurretan

'Adierazpenak' erakusketarako lanak aurkezteko aukera ere egongo da



'Zaharalduntze feminista' tailerreko kideak.

> IURRETA Maialen Zuazubiskar Adinkeria —emakume zaharrek pairatzen duten diskriminazioa— amaitzeko asmoz, Bizitzien Fundazioa *Zaharalduntze feminista* tailerra eskaintzen ari da Iurretan.

Hori horrela, eta tailer honetan emakume gehiagok parte hartu dezaten, ate irekiak antolatu dituzte martitzenarako, azaroaren 22rako. Tailerra

17:00etan hasiko da, Ibarretxe kultur etxean.

Isabel de Blas Bizitzien Fundazioko Berdintasun proiektueta- rako teknikariak azaldu duenez,

Azaroaren 22an, 17:00etan, tailer irekia egingo dute Ibarretxen

gaur egungo gizarte honetan adinkeria "oso barneratuta" dago. "Tailerrarekin gura duguna emakume zaharrek euren egunerokoan zeintzuk adinkeria jasaten dituzten identifikatzea, eta gazteagok barneratuta ditugun mikroadinkeriak ikusten joatea", adierazi du teknikariak.

Bestalde, *Zaharalduntze feminista* tailer hauek nagusiei bideratuta dauden arren, belaunaldi

arteko tailerrak direla jakitera eman du de Blasek. "Adinetik haratago gure artean errespetuz jokatzeko, adinkeriarik gabe jokatzeko balio dute tailerrek. Baita emakume batzuek besteen-gandik ikasteko ere", bukatu du.

'Adierazpenak' erakusketa Bestalde, Iurretako Udalak *Adierazpenak* lehiaketa martxan jarri du. Azaroaren 14tik azaroaren 23ra bitartean, iurretarek berdintasuna, indarkeria eta sexismoa gaitzat hartuta, beraien marrazki, esaldi, bertso, eslogan, bineta, argazki eta komiki laburrak aurkeztu ahal izango dituzte.

Behin lan guztiak aurkeztuta, azaroaren 24tik 30era bitartean lan erakusketa egongo da Ibarretxe Kultur Etxean.

Hilaren 20rako, berriz, emakumeen literatur tailerra antolatu dute, eta hilaren 21erako *Aspectos civiles y penales de la violencia contra las mujeres* hitzaldia. Anderebidek antolatu duen hitzaldi honetako hizlaria Eider Barrenetxea izango da.

Azaroaren 25aren harira antolatutako egitarauari amaiera emateko, hilaren 24an, 18:30ean, adierazpen instituzionalaren irakurketa egingo dute, eta, 19:00etan, Ana Apika helduen ipuin kontalaria egongo da Ibarretxe kultur etxean.

Iurretako Udalak hilaren 24ko ekintzetara morez jantzita joateko deia egin du.

Flashmoba egingo dute Lady Gagaren abesti batez

> FLASHMOBA J.D.

Emakundek urtero antolatzen duen Beldur Barik egitasmoaren barruan, Zornotzan flashmob bat egingo animatu dira herriko 40 bat neska-mutiko. Lady Gagaren abesti baten inguruan sortutako koreografia erakutsiko dute, azaroaren 25ean, 13:00etan, Herriko enparantzan.

Flashmoba azaroaren 25ean erakutsiko dute Herriko plazan

Zornotzan Ametx Gazteriarren eta udaleko Berdintasun Sailaren artean daramaten ekimena da. Flashmobearen parte hartuko duten parte-hartzaile denak gazteak dira. Nagusienak 18 bat urte izango ditu, Ametx Gazteriatik adierazi dutenez. Azaroan hainbat entsegu egin dituzte Zelaieta Zentroan.

Beldur Barik programak emakumeen ahalduntzea bultzatzera bideratutako mezuak indartzea du helburu.

Indarkeriaren aurrean batera lan egiteko protokoloa berrituko dute

Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalek sinatuko dute, hilaren 24an

> DURANGALDEA M.O. Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalek koordinazio protokolo bat dute Amankomunazgoagaz, Ertzaintzagaz eta Osakidetzagaz, emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean batera lan egiteko. Erasoaren bat sufritu duen emakumeak tratatu on eta egoki bat

jaso dezala da euren asmoa, eta behar duen laguntza emateko, ahalik eta efizienteen jardutea. 2011tik dago martxan, eta orain, berritzeko edo hobetzeko beharria ikusi dute, Odei Arrizabalaga Berrizko udal teknikariak informatu duenez.

Datorren azaroaren 24an sinatuko dute dokumentua, Du-

rango Andragunean egingo duten ekitaldian. *Emakumeen*

Sufritu duen emakumeak tratatu on bat jaso dezala da euren asmoa

kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. Protokoloa izena emango diote.

Hobekuntzak

Arrizabalagak dio zenbait hobekuntza egin dizkiotela planari. Alde batetik, Europako legedi eta arautegietara egokitzea izan da emandako pauso bat. Bestetik, indarkeria matxista mota gehiago eta horiek gertatzen diren espazio gehiago txertatu dituzte dokumentuan. Izan ere, orain arte indarkeria fisikoa jasotzen zen soilik, bikotekide edo bikotekide oihek egindakoa,

eta batez ere, bikoteen etxeetan gertatzen zena. Beraz, modu horretan, protokoloa errealitate hurbilago egongo da. "Hori baita eguneko erronka: erakunde guztien lan-tresnak eguneratu, prestakuntza jaso, koordinazioa erraztu... Eta bide horretan gauden", dio Arrizabalagak.

Protokoloa bi mahaitan garatzen da, politikoan eta teknikoan. Bigarrenetan, gizarte eta berdintasun teknikariek, ertzainek eta Osakidetzako beharginek parte hartzen dute. Protokoloa gizarteratzeko, etxeetan esku-orri bat banatuko dute.

AZAROAK 25 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA IURRETA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

Azaroak 14/23 IBARRETXE KULTUR ETXEA - "ADIERAZPENAK" Animatu zaitez zure marrazki, esaldi, bertso, eslogan, bineta, argazki eta komiki laburrak aurkezteko. Gaia: BERDINTASUNA, INDARKERIA ETA SEXISMOA

Azaroak 21 IBARRETXE KULTUR ETXEA - ANDEREBIDE ELKARTEA **18:00 Hitzaldia:** "ASPECTOS CIVILES Y PENALES DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES" Hizlaria: Eider Barrenetxea (Abella Legal)

Azaroak 24 IBARRETXE KULTUR ETXEA **18:30** Pegatinak eta puntu moreak banatuko dira **Morez janztera animatzen zaitugu** **18:30** ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA Jarraian: Durangaldea Beldur Barik 2017ko lehiaketa ikus-entzunezko adierazpen artistikoak **19:00** Helduen ipuin kontalaria Ana Apika (Euskal Herria) "DE SERES, ENSERES Y SABERES"

Azaroak 20 IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA - GIZARTE ONGIZATEA **18:00** Emakumeen literatur tailerra ESCRITORAS ITALIANAS (aurretiaz izena eman)

Azaroak 22 IBARRETXE KULTUR ETXEA - BIZITZEN FUNDAZIOA **17:00** Adinkeria: EMAKUMEEN ZAHARALDUNTZE TAILERRA (jurretiaz izena eman)

Azaroak 24/30 IBARRETXE KULTUR ETXEA Erakusketa: "ADIERAZPENAK"

ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!

Iurretan

BIZITZEN

IURRETA



“Herri indigenak emakume eta gizonak parekatzen zituen, baina kolonialismoak txarrera eragin zuen”

Mapuzungun hizkuntza maputxearen aldeko Paula Huenumilla aktibista Durangaldean egon da; emakumez ere berba egin du



Huenumillak aste batzuk eman ditu Euskal Herrian, eta domekan bueltatuko da Txilera. Argazkian, lurretan.

> HIZKUNTZA Markel Onaindia Hego hemisferioan hizkuntza indigenen alde lan egiten duen Garabide elkarteari esker Euskal Herrian ibili da Paula Huenumilla maputxea, hemengo hizkuntza biziberritzeko esperientziak ezagutzen -ANBOTO ere bisitatu zuen atzo-. Izan ere, Txile eta Argentina hegoaldeko Wallmapu lurraldeko Mapuzungun hizkuntza berreskuratzeko lanean dabil, eta irakasle da zenbait hiritan. Gainera, bisita aprobetxatuta, emakumeen egoeraz berba egin du Durangon.

Zelako bilakaera eduki du emakume maputxeak?

Allenderen gobernu sozialistaren sasoian, emakume indigenen gaia lantzen hasi ziren. Emakumeei irakasten hasi ziren, ofizio bat emateko, baina etxe barruko zereginetan. Emakumeak irabazitako autonomia apurra diktaduran galdu zen, etxeratze-aginduen erruz gehiago babestu baitzen etxeetan. 80ko hamarkadan, zenbait zen-

tro kultural emakumeen lider-tza sustatzen hasi ziren, eta maputxeen mugimenduaren baitan orduan agertu ziren lehen emakume liderrak.

Orain zer egoera bizi duzue?

Txileko estatuak oso gutxi egiten du emakumeen kontrako indarkeriaren aurka, nahiz eta Bacheletegaz apur bat aurreratu den berdintasun ikuspegian. Bestalde, emakume maputxe gisa, nire bizitza kontraesankorra

“Txileko estatuak oso gutxi egiten du emakumeenganako indarkeriaren aurka”

“Lidertza maskulinoak oso indartsuak dira maputxeen artean”

da: hirian jaioa naiz, eta maputxeen lurraldearen autonomiaren alde egiten dut, baina gizar-te horrek ez nau emakume lez errespetatuko, eta Txileko gizar-tera bueltatu beharko dut gehiago errespetatu nazaten. Berez, gure herri indigenak emakume eta gizonak parekatzen zituen, baina kolonialismoak txarrera eragin zuen. Uneotan, gure aliatuak onenak feminista txiletarrak dira. Zenbait gizon ere batu izan direla ikusi dugu, baina praktikan matxista batzuk dira. Emakumeen egoeraz analisiak egiteko tarte hartzen dugu, baina praktikarako ez gehiegi. Esaterako, nik hizkuntzaren aldeko lanagatik asko bidaiatzen dut, baina ez dut astirik emakumeen gaietan sakontzeko.

Zaila egiten al zaizue botere eremuak eskuratzea?

Lidertza maskulinoak oso indartsuak dira maputxeen artean. Mugimendu politikora heltzean, norbaiten bikotekidea zara, edo hor zaude norbaiten bikotekide izateagatik. Horre-

gatik, emakume gazteak horri buelta ematen saiatzen gabiltza. Gainera, jarrera feministak txiletarrekin lotzen dituzte, men-debaldeko kulturagaz. Esaten dute jarrera horiek inoiz ez direla izan indigenenak, baina hori ez da horrela.

Hori kulturalki ere igarriko da.

Bai, Palin jolasean, adibidez, aspaldi mantentzen diren jolasetako batean. Diktaduran gizonak soilik jolasten ziren. Orain, geu

“Nire hirian, Araucon, maputxe kultura ezabatu egin zuten”

“Euskal Herrian egin dena erreferentzia lez hartu izan dugu”

ere hasi gara jolasten, eta txar-to ikusten dute batzuek. Emakumea inoiz ez dela jolastu, *femina-ziak* garela, kultura tradizionala hausten gabiltzala...

Mapuzungun hizkuntza berreskuratzen zabilta. Baina ez da zure ama hizkuntza. Zelan piztu zitzaizun jakin-mina?

Nire hirian, Araucon, maputxe kultura ezabatu egin zuten. Izan ere, Concepcionetik oso gertu dago, espainiar kutsuko hiri esanguratsua da. Mapuzungunak beti erakarri izan nau, nik uste odol kontua dela. Zerbait falta nuenaren sentsazioa nuen. Nire familia egun batez izan zenera hurreratu gura nuen. Konturatu nintzen oraindik bazegoela berba egiten duen jendea, eta eurek ezagutzen hasi nintzen. Azkenean, 21 eguneko ikastaro trinko bat egin nuen. Gero, Araucora bueltatu eta tailerrak eskaintzen hasi nintzen, nekien apurragez. Orain, Angolen, Concepcionen eta Temucón nabil irakasle. Gazte maputxeen zirkulu bat egin dugu Concepcionen.

Hiztun asko zarete? Zer egoera bizi du hizkuntzak?

Oso hiztun gutxi ditugu. Gainera, kontua da errealtatean ez dakigula zenbat maputxe garen zehazki. Erroldetan gero eta gehiago onartzen dira maputxe lez. Nik uste mapuzunguna dakigunok ez garela 200.000tik pasatzen, baina %1 soilik bizi da bere hizkuntzan. Hiztegia sortzea falta zaigu, gramatika arautzea, eta hizkuntza estandar bat lantzea ere bai. Txilen herri indigenak ez daude errekonozituta; Argentinan bai, baina ez die askorik balio. Hizkuntza ofiziala gaztelania da. Bacheletek, aginteko azken hileetan, mapuzunguna ofizializatzeko asmoa agertu du, herritarren mugimenduak eskatu ostean. Baina, ofizialtasuna berreskuratzeko plan batez lotuta egon behar dela uste dugu. Guk ez dugu soilik argazki bat ateratzea gura.

Euskal Herrian zer esperientzia duzue erredutzat?

Euskal Herrian egin dena erreferentzia lez hartu izan dugu. Esaterako, barnetegien antzerakoak egin ditugu, eta Korrika eredu hartuta, mapuzungunaren aldeko martxa bat. Egunkari digital bat ere martxan ipini dugu orain. Zuen kasua ikusita, 80 urtegan lanean jarraitu beharko dudala ulertu dut.

“Mikromatxismoak afektua erabiltzen du trikimailu gisa emakumearen pentsamendu eta ekintzak baldintzatzeko”

Andrea Izagirrek eta Idoia Iturbek mikromatxismoaren inguruko berbaldia emango dute, azaroaren 28an, 19:00etan, Durangoko Andragunean. Andreak elkarteak antolatutako ekitaldia izango da

> ELKARRIZKETA J. Guenetxea
Zer da mikromatxismoa? Nola azalduko zenukete?

Mikromatxismo kontzeptua Luis Bonino psikoterapeutak sortu zuen 1998an, gizonengandik eta gizartearen eskutik datozen kontrol estrategia edota mikrobiolentzia gisa funtzionatzen duten eguneroko jokabide nahiz jarrera sutilei izena emanez. Emakumeen autonomia pertsonalaren aurka egiten dute, sozialki onartzen dira eta gizon-emakumeen arteko botere asimetria mantentzen dute.

Jokabide matxista batzuek sozialki gaitzespen handia dute. Aldiz, mikromatxismoagaz ez da berdina gertatzen.

Emakumeen aurkako indarkeria modurik agerikoenak —hilketak eta bortxaketak— deslegitimatatu egiten dira. Mikromatxismoak, haien ezkutuko izaeragatik eta normalizazioagatik,



Izagirrek eta Iturbek mikromatxismoaren inguruko gogoeta egingo dute.

ez dira indarkeriatzat hartzen, ezta antzematen ere.

Mikromatxismoa hain ezkutuan dago beti, ala adierazpen batzuk agerikoagoak dira? Mikromatxismoak zenbaezinak

“Mikromatxismoak ezkutukoak direnez ez dira indarkeria lez hartzen”

“Emakumeen autonomia pertsonalaren aurka egiten dute”

dira, literaturak lau motatan sailkatzen ditu: erabilgarriak, hertsatzaileak, ezkutukoak eta krisi-mikromatxismoak. Ba-

tzuk beste batzuk baino erraza- go sumatzen dira, erabilgarriak, adibidez. Emakumeak lan munduan sartzerakoan, tradizional- ki haiei egotzi izan zaien etxe- ko lanen eta pertsonen zaintza- ren ardurak haien gain jarraitu du, gizonak, gehienez ere, “la- guntzaile” rola betez. Ondorioz, emakumeek pairatutako lan- gainkargaren eraginak nabar- mendu egin dira, auzi hau es- ku hartu beharreko bidegabe- ria gisa sozialki agerian geratuz. Beste batzuk oso normalizatu- ta ditugu, eta zaila egiten zaigu identifikatzea; ezkutuko mikro- matxismoak, adibidez. Afektua erabiltzen baita trikimailu gisa emakumearen pentsamendu eta ekintzak baldintzatzeko.

Jabekuntzak zein paper jokatzen du gai honetan?

Jabekuntzak berebiziko funtzioa betetzen du. Sistema patriarkatuaren egituraketan, gizonak emakumeen gain kokatu izan dira eta emakumeen aurkako hainbat praktika burutzen dituzte. Ahalduntzearen bidez, emakumeek trikimailu hauek ezagutu eta haien funtzionamendua ulertzen dute. Norbere botere pertsonala areagotzen dute, eta estrategia hornitu, jarrera hauei erantzun eraginkor- rrak eman ahal izateko.



ANUNCIACIÓN VARAS
GORA TA GORA ANTZERKI TALDEA

Azaroak 17
19:00etan ANDRAGUNEAN
POESIA ERREZITALDI MUSIKATUA
Poetak: Leire Bilbao, Arrate Mardaras eta Kristina Mardaras.
Musikariak: Eunate Zarrabeitia, Aitor Astigarraga eta Dana Mora (abeslaria).

Azaroak 23
12:30etan UDALETXEAN
HERRIKO ENTITATEEI AITORTZA, indarkeria matxistaren kontra duten inplikazioagatik.

Azaroak 24
13:00etan UDALETXEKO PLAZAN
ELKARRHETARATzea ETA AZAROAREN 15EKO ADIERAZPENA, ikastetxeetako ikasleekin.
18:30etan BIZENTA MOGEL BIBLIOTEKAN
HITZALDIA "Emakume afrikarra" (De)Construyendo identidades, imaginarios y prácticas. Mujeres migrantes africanas en la encrucijada. Jeanne Rolande Dacougna Minkette.

Azaroak 25
17:00etan EZKURDIN
II EMAKUMEEN LASTERKETA
Irteera eta helmuga: Ezkurdi.
Antolatzailea: Durango Kirol Taldea.
19:00etan SANTA ANATIK
MANIFESTAZIOA
Antolatzailea: Plataforma Feminista de Durango.

Azaroak 24-25
ANDRAGUNEAN
AUTODEFENTSA FEMINISTA

Azaroak 28
19:00etan ANDRAGUNEAN
HITZALDIA "Mikromatxismoak"
Antolatzailea: Andreak.
Hizlariak: Idoia Iturbe eta Andrea Izagirre.

Azaroak 30
18:00etan ANDRAGUNEAN
DOKUMENTALA "Volar"
"Volar" dokumentalaren protagonista diren bederatzik emakumeen ekimena da, genero biolentziaren aurka eurek eginiko lan ausartaren emaitza.
Ekiozpena: Emakunde
Antolatzailea: Berdintasun Arloa

azaroak
25
DURANGO

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

EZ ezetz da!

ANTOLATZAILAK



BULTZATZAILAK



LAGUNTZAILAK



Alain Azkarate Alcibar | Abadiño futbol taldeko jokalaria | Durango, 1991

“Sekula ez naiz izan gol asko sartzen dituen jokalaria; harrituta eta oso pozik nago”

Abadiño futbol taldeagaz sei gol sartu ditu ligako azkenengo lau partiduetan eskuin hegaleko jokalaria durangarrak

> FUTBOLA Joseba Derteano

Une gozoan dago Alain Azkarate. Hegalean jokatzeko duen arren, lau partiduetan sei gol sartu ditu eta taldeko goleatzaile nagusia da. Hain bolada onik sekula ez duela izan dio. Aurrelari sena piztu zaio, eta area barruan harrapatzen duen baloia sareetan amaitzen du.

Ate aurrean erakutsi duzun eraginkortasunak ezustean hartu zaitu?

Egia esanda, bai. Azkenengo lau partiduetan titular jokatu dut, eta horietan sartu ditut sei golak. Ez nuen itxaroten. Eskuin hegalean jokatzeko dut, eta sekula ez naiz izan gol asko sartzen dituen jokalaria. Gehiago izan naiz asistentziak ematen dituen horietakoa. Beraz, apur bat harrituta nago. Inoiz ez dut horrelako bolada bat izan. Oso pozik nago, denoi gustatzen zaigulako golak sartzea. Ea martxa horretan jarraitzeko modua daukadan. Joan zen asteburuan, Ezkurdiren kontrako derbian, nire golak partidua irabazteko balio izan zigun. Guretzat hiru puntu garrantzitsu izan dira, lider jartzeko balio izan digutelako.

Zelan joan zen derbia?

Derbi denen antzera, intentsitate handiko partidua izan zen. Lehen zatian sartutako golagaz heldu ginen azken txanpara, eta sufritzea egokitu zitzaigun.

Ligako lehenengo hiru partiduetan ezin izan zenituen jokatu lesio bategatik.

Hori da. Aurreko denboralditik dakardan lesioa da. Zalduagaz partidu batean orkatila bihurtu eta ezin izan nituen azkenengo bost partiduetan jokatu. Tendoia handitu zitzaidan. Udan mina joan egingo zela uste nuen, baina aurrendenboraldian ez zegoela sendatuta oharu nintzen. Saiatu arren, sentsazio txarrak nituen. Ondo sendatzeko hobe zela geldirik egotea gomendatu zidaten. Hainbat zentrotara joan naiz eta, badaezpada, orkatila lotuta entrenatu naiz, eta hala jokatu izan dut. Orain hobeto nago, gero eta min gutxiago dut.



Kurutzia ga ikastolan eman zizkion baloiari lehenengo ostikadak; ondoren, Durangoko Kulturalean aritu zen Abadiñora batu aurretik.

Iaz Abadiñotik Zalduara joan zinen eta, lehenengoz, Ohorezko Mailan jokatu zenuen. Zelako esperientzia izan zen? Partidu asko jokatu nituen, eta gustura aritu nintzen. Esperientzia polita izan zen. Kalitate handiko taldeak eta jokalaria daude, eta ez zeukan zerikusirik ordura arte ezagutzen nuenagaz. Beste mundu bat da.

Azkenean, taldea jaitsi egin zen. Gogorra egin zitzaizuen? Apur bat gogorra egin zitzaigun maila galtzea, baina bagenekien mantentzea gaitza izango zela, talde igoberria zelako eta maila handia dagoelako. Hala ere, denboraldia jaitsiera postutik kanpora amaitu genuen eta Hirugarren Mailako jaitsiera kopurua erruz galdu genuen maila.

Aurten kategoria bi beherago zabiltza. Taldeen mailan igaritzen da?

Bai, jakina. Aldea dago. Uste dut iazko esperientzia baliagarri izan zitzaidalako futbolari moduan hazteko, eta, aurten, du-

dan dena eskaini gura diot Abadiñori.

Zergatik erabaki duzu Abadiñora bueltatzea?

Zalduaren aurretik, Abadiñon urte askoan aritu naiz, lagunak ditut eta horregatik hartu dut erabakia. Oraingoz gusturara nabil.

“**Ohorezko Mailan kalitate handiko talde eta jokalaria daude; beste mundu bat da**”

“**Mailaz igotzea dugu helburu; desio horregaz bueltatu naiz Abadiñora**”

Iaz Maila Gorenetik Lehenengo Erregionalerara jaitsi zen Abadiño. Aurten igotzea duzue helburu?

Bai, igotzea dugu helburu. Desio horregaz bueltatu naiz Abadiñora. Badakigu jokalaria onak ditugula eta badakigu taldeak zer eman dezakeen. Jakina, gero hori zelaiaren erakutsi beharra dago eta, momentuz, lortzen ari gara.

Ez igotzea porrota litzateke? Ez dakit ba, beharbada bai. Hasiarik, igotzea da asmoa. Abadiñori dagokion tokia maila bat gorago dagoela uste dugu.

Zelakoa da Abadiñoaren aurretiko taldea?

Jokalaria onak ditugu eta, normalean, partiduetan agintzea lortzen dugu.

Lau futbolari etorri zarete Zalduatik Abadiñora. Taldeari kalitate estra bat eman behar diozuela sentitzen duzue?

Taldeari ahal dudana dena ematea da nire helburua. Igotzen

bagara talde-lanaren ondorioa izango da. Gainera, jokalaria askok dute jokatzeko aukera. Entrenatzaileak ez du beti hamakako bera zelairatzen. Minutuak elkarbanatzea garrantzitsua da taldean giro ona egon dadin.

Lana eta futbola uztartzea zaila da?

Hiru erreleboan lanean nabil. Beraz, hiru asterik behin ezin naiz taldekideekin entrenatu. Asteon, adibidez. Taldekide batez geratzen naiz Astolan korrika egiteko. Gimnasio bat ere badugu.

Zelan amaitu du durangar bategen Abadiñon jokatzeko?

Kurutzia ga ikastolan hasi nintzen. Ondoren, urte bitan Athletic-en Dena planean [tokian tokiko talentu gazteak identifikatu eta hezteko egitasmoa] egon nintzen. Hurrengo hiru urteak Durangoko Kulturalean eman nituen. Ez nuen aukerarik asko jokatzeko, eta Abadiñora etorri nintzen.

Sasikoa eta Elorrioko Buskantzako neskek liga irabaztea dute helburu, indarrak batuta

Bost jardunalditan lau garaipen eta berdinketa bat eskuratu dituzte Durangoko Sasikoa taldeko neskek

> ARETO-FUTBOLA M.Z.

Sasikoa taldeko neskek ezin hobeto hasi dute denboraldia, bost jardunalditan lau garaipen eta berdinketa bat eskuratu dituzte eta. “Denboraldi hasiera ona egiten gabilta. Oraindik talde indartsu askoren kontra jokatu ez dugun arren, taldea lan ona egiten dabil”, adierazi du Maite Gonzalez (Berriz, 1992) taldeko kapitainak.

Sasikoa taldeko kapitaina izateaz gain, Durangoko areto-futbol taldeko betaranoenarikoa ere bada berriztarra. Gainera, hainbat urtetan Euskadiko Selektzioko kide ere izandakoa da.

Gonzalezek aitortu duenez, iaz hamabi urte inguruko futbol ibilbideari amaiera ematea pentsatu zuen. Baina, azken unean, Elorrioko Buskantza taldeko zenbait jokalarik Sasikoan jokatu zutelako jakiteak futboleko jokatzeko jarraitzea bultzatu zuen. “Azken denboraldian jokalarik gutxi



Maite Gonzalez Aldekoa, Sasikoa taldeko kapitaina.

geunden, eta horrek sakrifizio maila handia eskatzen zigen. Horrela jarraitzea oso gogorra

zen, partidu guztietan ehuneko ehunetan egon behar ginen eta”, esan du kapitainak.

Aurten, berriz, indarrak batuta dabilta Durangoko eta Elorrioko jokalariek, eta kapitainak aitortu duenez, duela bi denboraldi lez Bizkaiko Liga irabaztea dute helburu. “Oraindik talde berria gara, baina, aurten ez bada, datorren urtean liga irabaziko dugulakoan nago”, aitortu du.

Bizkaiko Liga irabaztea zer den badakite Sasikoa taldeko neskek, eta 2015-2016 denboraldian lez, bide egokitik doaz eskualdeko futbolariak. “Sasikoa taldearen arrakastaren funtsa jokalarik guztiok talde bat osatzen dugula da”, adierazi du Maite Gonzalezek.

Horrez gain, azken urteotan Sasikoako nesken maila izugarri hobetu da eta, Gonzalezek hitzetan, horren “errua” Mikel Diestro Euskadiko Selektzioko hautatzaileak du. “Harreman estua dugu eta pare bat bider etorri da gugana, laguntzera. Oso eskertuta gaude”, gaineratu du.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI DEL CAMPO

Futbolari ohia eta enpresaria



Denboraren afera

Berehalako emaitzen gati-bu bizi den gizarte honetan, sarri denborak urtearen beste balioa duela esan ohi da. Agian, horregatik joango da gure eguneroko erritmoa abiada bizian. Zer esanik ez kirol profesionalean, 3 edo 7 egunetan behin azterketa gaintu behar denean, hots, examina horren emaitzak guztia zipriztintzen duenean. Beraz, emaitzaren eta denboraren arteko harremana gatazkatsua da, kontuan hartuta taldeak orain arte erakutsi duen lehiakortasuna irregularra izan dela. Horrela, gure Athletic kutunera joz, aipatutako harremana egoera kaskarrean dagoela antzeman dezakegu, barruan daudenean denbora eskatzen duten bitartean, kanpoan dauden askok denbora agortu dela diotelako.

Taldeak denbora behar du zaletuok ditugun espektatibak bete ahal izateko. Zergatik? Aulkian eta jokalarien artean aurpegi berri asko daudelako (Ziganda eta bere taldea, Cordoba, Nuñez, Vesga...), berriak ez baina orain arte protagonismo handirik izan ez dutenak daudelako (Saborit, Aketxe...), aurreko denboraldietan maila handia eman duten jokalariek aurre-denboraldian lesionaturik egon direlako edo egun daudelako (Iturraspe, De Marcos, Yera, Beñat...), entrenatzaile baten zikloa bukatu eta hurrengo hastean emaitzak ez direlako berehalakoan etortzen, jokalariek entrenatzaile berriaren zigilua ulertu, sinistu eta asumitu behar dutelako... Beraz zer egingo dugu? Taldeari denbora eman ala kendu? Tamalez, hurrengo emaitzak izango dira erantzunaren jabe.

Elorriko, Athleticen lagunarte berria aurkeztu dute gonbidatu ezagunekin

Javier Clemente, Ander Iturraspe, Eneko Boveda... bertaratu ziren



Elorriko lagunarteko kideak aurkezpen egunean, Javier Clementegaz.

> FUTBOLA J.D.

Aurrerantzean, Athleticen lagunarte berria izango du Elorriko. Elorriko izena jarri diote, eta Ortuburu elkartearen aurkeztu zuten, eguaztenean.

Ander Iturraspe eta Eneko Boveda futbol jokalariek bertaratu ziren eta, adeitsu, gaztetxoei autografoak sinatu zizkieten. Javier Clementek ere bertatik bertara jarraitu zuen aurkezpena. Athleticen jokatu duten Jose Mari Igartua

eta Jose Zenitagoia elorriarrak eta lehenengo mailako talde baten baino gehiagotan aritu den Juan Mari Duñabeitia elorriarra ere hantxe izan ziren. Athleticen ordezkaritza Javier Uchak eta Jose Mari Argoitiak osatu zuten.

Athleticen beste lagunarte batzuetako ordezkariek ere gonbidatu zituzten; tartean, Otxandioko Koikili Lertxundirenak. Denei lagunarte berriko logoagaz egindako oroigarria eman zieten.

Lagunarte berriagaz, “azken urte bietan buruan zerabilten asmoa gauzatu” dutela azaldu zuen Edu de la Cruz lagunarteko presidentea. 30 bat lagunekin hasi dute ibilbidea.

hitz #salduenak
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

JENIS JOPLIN
Uxue Alberdi
Susa

AMETSONDOA
Peru
Magdalena
Elkar

LANDAREAK LANTZEN
Jakoba Errekondo
& Antton Olariaga
Argia

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eitua Industr., 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890

Tronperri kalea, 1 DURANGO
Tel.: 946 811 737

Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa

OSTA- LARITZA GIDA



ABARKETERUENA

- Iturritxo, 6 - Txanporta plaza
- ABADIÑO
- **Tel.: 944 657 790**
- Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak.
- Giro oso ona.



IBAIZABAL KAFETEGIA

- Ibaizabal taldea, 2A DURANGO
- **Tel.: 946 550 185**
- Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



KOBIKA JATETXEA

- San Ignazio, 8 DURANGO
- **Tel.: 946 810 003**
- Egile sukaldaritza eta tradizionala.
- Menu bereziak eta karta.



OLAJAUREGI JATETXEA

- Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO
- **Tel.: 946 200 864**
- www.olajauregi-jatetxea.com
- Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
- Egunero zabalik.



KANBIO JATETXEA

- San Migel Dudea auzoa,
- AMOREBIETA-ETXANO
- **Tel.: 946 730 033**
- Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.



IBARRA SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA

- Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
- www.ibarra-sagardotegi.com
- **Tel.: 946 731 100**
- **20. urteurrena.** Orain garagardotegia eta sagardotegia; menu ezberdinak.
- Gure upategian egindako sagardoa.
- Asteazken zehar soilik erreserbentzako zabalitzen da.



PLATERUENA Kafe Antzokia

- Landako etorbidea, 4 DURANGO
- **Tel.: 946 030 300**
- www.plateruena.eus
- Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

Anbotoren lagunak



Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Hile honetako irabazlea: **Idoia Marin Kortazar**

ZORTE ON!

Berrizen erabakiko dira Emakumeen Master Cup txapelketako finalistak

Domekan elite eta lehenengo mailako finalerdiak jokatuko dituzte Olakueta pilotalekuan



Lau finalerdi jokatuko dituzte, 12:00etan hasita. Goiena

> ESKU PILOTA J.D. Laboral Kutxa Emakumeen Master Cup lau t'erdiko pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Berrizen finalerdiak jokatuko dituzte domeka honetan, eta finala Sopelako pilotalekuak hartuko du, abenduaren 6an.

Etziko jardunaldia 12:00etan hasiko da eta ETBk zuzenean eskainiko du. Elite mailako lehenengo finalerdiak Leire Etxaniz etxebarriraren eta Leire Garai gasteiztarraren artekoa da. Bigarrean Maitte Mendizabal anoetarrak eta Maddi Mendizabal zaldibiarren artekoa da. Mendizabalek irabazi daitezkeen guztia irabazi du paleta goman: munduko hainbat txapelketa, Europakoa... Ostein, lehenengo mailako finalerdiak hasiko dira. Maite Iriarte eta Oihana Orbegozo azpeitiarrek jokatuko dute lehenengo, eta Eneritz Arrieta azkoitiarrak eta Iratxe Ibarra markinarrak, ondoren. Nagusien partiduen aurretik, Oizpe pilota elkarteko neskato gazteek partidu bat jokatuko dute.

Txapelketan 68 pilotari aritu dira, eta 20 berriak izan dira. Euskaldunak dira gehienak, baina Katalunia eta Aragoiok ere izan dira. "2018an txapelketaren jarraipena ziurtaturik dugu. ETBgaz hitzarmena dugu, beste lau emanalditarako", esan du Iker Amariko txapelketako antolatzaileetako batek.

pelketa, Europakoa... Ostein, lehenengo mailako finalerdiak hasiko dira. Maite Iriarte eta Oihana Orbegozo azpeitiarrek jokatuko dute lehenengo, eta Eneritz Arrieta azkoitiarrak eta Iratxe Ibarra markinarrak, ondoren. Nagusien partiduen aurretik, Oizpe pilota elkarteko neskato gazteek partidu bat jokatuko dute.



Zornotzan zein Berrizen 2,8 kilometroko zirkuituan zehar ibiliko dira parte-hartzaileak. Pello Osoro

Elorrioren ostean, Zornotza eta Berrizen txanda da ziklo-krosean

Datozen asteburu bietan ziklo-kros probak izango dira herri bietan

> ZIKLO-KROSA J.D. Nazioarteko izarrek Elorrioko proban emandako ikuskizunaren ostean, ziklo-kros egutegiko hurrengo hitzorduak ere Durangaldean izango dira: Zornotzan asteburu honetan, eta Berrizen hurrengoan.

Zornotzako lasterketa domekan lehiatuko da, eta kadete eta gazte mailako txirrindulariei bideratuta dago. Urtero legez, Amorebieta Txirrindulari Elkartean Jauregiarriako landetan antolatuko du 2,8 kilometroko luzera duen zirkuitua. Neska-mutiko kadeteen laster-

keta 11:00etan hasiko da, eta gazteena 12:00etan.

25ean, Berrizen

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusiak 200 txirrindulari baino gehiago elkartuko ditu azaroaren 25eko zapatuan, Berrizburun. Berriz Bizikletari Elkartean eta Berrizko Udalaren artean antolatutako lasterketa 2,8 kilometro dituen zirkuitu azkarrean gauzatuko dute. Txirrindulariek jaitsiera tekniko, igoera gogorrei eta saltoei zein oztopo naturalei aurre egin beharko diete ibilbidean.

Master mailako txirrindulariak izango dira lanean hasten lehenengoak, 10:00etan. Ondoren, 11:00etan, kadeteen txanda izango da eta, 12:00etan, junior mutilena eta emakumeena —elite, 23 urtez azpiko eta juniorrena—. Gizonen lasterketa nagusiari —23 urtez azpikoak zein eliteak batuko dituenari— 13:00etan ekingo diote. Gizonetan Aitor Hernandez izango da fabotiro.

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusiak sari eta dieta berdinak banatuko ditu mutilen eta nesken artean.

BERRIZKO SARI NAGUSIA
ZIKLO-KROS
AZAROAK 25
Berrizburun

Master 10:00 30/40/50/60	Junlor, Sub-23 eta Elite Neskak
Kadeteak 11:00 Neskak eta mutikak	Sub-23 eta Elite Mutikak 13:00
Junior 12:00 Mutikak	

Logotipoak: Berriz, 6, Amazon Norkar, anboto, dinamika, Cruz Roja, Tekno, Deia.

www.berrizbizikletarielkartea.com

'Incognita Patagonia' hitzaldiagaz hasiko da Erdellaren Mendi Astea

Elorrioren azaroaren 20tik 25era bitartean egingo dute Mendi Astea



Eñaut Izagirrek Patagonia izango du berbagai. www.incognitapatagonia.com

> MENDIA M.Zuazubiskar Azaroaren 20tik 25era bitartean, Erdella Mendizalea taldeak antolatuta, Mendi Astea egingo dute.

Hitzaldi zikloa Eñaut Izagirre elgoibartarrak hasiko

du. Geografo eta glaziologoak Patagonian bizitako esperientzia izango du berbagai. Iturri kultur etxeko hitzaldian, inork zapaldu gabeko glaziarretan bizitako esperientziaren inguruan arituko da Izagirre.

Bestalde, hilaren 21ean, Mikel Sarasolak Nepalen kayakagaz izandako bizipenak kontatuko ditu. Eta, hilaren 22an, Josu

Erdellak antolatutako Elorrioko aurtengo Mendi Astea bost hitzaldi egingo dira

Zeberioak espeleologia izango du hizpide. Biharamunean, Aitor Askargorta alpinismoaren inguruan arituko da. Hitzaldi zikloari Uxue Fraile mendi korrikalariak emango dio amaiera, azaroaren 24an. Eta, azaroaren 25ean, urteko batzarra eta luntxa egingo dituzte.



GREMIOEN GIDA



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



ZURGINTZA

leike aroztegia &
diseinua &
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.
Pintura eta pintura apaingarria.
Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

**UNAI
GARAY**

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



ITURGINTZA

ALDEKOA-OTALORA

ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoootalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 Ind. Arzubia - Pab. 13-14
IURRETA **ABADIÑO**
946 202 768 944 071 791


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



AZAROAREN 18an, 22:30ean,
ATENEO aretoan

Bluefolk Caravan

Bluefolk Caravan Leandro Yaguas gitarra eta abeslariak, Angel Vera harmonika-jotzaileak, Dani Herrero saxofonistak eta Tinky Blues Banden oinarri bandak osatzen dute. Berez, Robert Smith Bluesband taldeak eskaini behar zuen kontzertua, baina Smithen osasun arazoengatik aldatu behar izan dute.

Musika

:: DURANGO

AZAROAREN 17an

22:00etan, Gatibu taldearen kontzertua Plateruenean. Sarrerak agortuta daude.

AZAROAREN 18an

19:00etan, Durangoko orfeoiaren kantaldia, Zezili Deunaren omenez, Andra Maria elizan.

22:00etan, Gatibu taldearen kontzertua, Plateruenean. Sarrerak agortuta daude.

AZAROAREN 19an

13:00etan, Durangoko Musika Banda eta organo kontzertua, Andra Maria elizan.

:: ZALDIBAR

AZAROAREN 17an

22:30ean, Riff and Chips, Fool Time Lovers eta The Van taldeen kontzertua, Gaztetxean.

:: ELORRIO

AZAROAREN 17an

22:30ean, Iñaki Salvador trio taldearen kontzertua, Ateneon.

AZAROAREN 18an

22:30ean, State Alerta, Against You eta Knock Out taldeen kontzertua, Gaztetxean.

AZAROAREN 19an

20:00etan, Diablues & Bluecifer taldearen kontzertua, Portalekuan.

:: IURRETA

AZAROAREN 18an

19:00etan, Julio Veita eta Jon Monteroren kontzertua, Ibarretxe kultur etxean. Iurretako Musikaldia.

:: BERRIZ

AZAROAREN 18an

20:00etan, Aitor Etxeberriaren kontzertua, Kultur Etxean. 'Markak' dokumentalaren soinu banda, zuzenean.

:: ABADIÑO

AZAROAREN 17an

22:00etan, Klown, Rise Up, eta Inarres Tabili (Punk Rock Italiatik) taldeen kontzertua, gaztetxean.

Antzerkia

:: BERRIZ

AZAROAREN 17an

18:00etan, 'Loo' antzezlan, Berrizko Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 19an

19:00etan, David Guaporen bakarriketa saioa, Plateruenean.

19:00etan, 'Los visitantes' antzezlan, San Agustin kulturgunean.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 17an

21:00etan, 'Maurizia' dantza ikuskizuna, Zornotza aretoan.

:: ELORRIO

AZAROAREN 19an

21:00etan, 'Burbujas de papel' ikuskizuna, Arriola antzokian.

Poesia

:: DURANGO

AZAROAREN 17an

19:00etan, poesia musikatua, Andragunean.

Erakusketa

:: DURANGO

AZAROAREN 18ra arte

Jon Gorosperen 'N. Mountains', Kurutzesantu Museon. Begira jaialdia.

:: ELORRIO

AZAROAREN 17ra arte

Aire libreko margolan lehiaketako lanak ikusgai, Iturrin. Gaur azken eguna!

Jardunaldiak

:: DURANGO

AZAROAREN 23an

19:00etan, Mari Luz Esteban elkarriketatuko du Erika Lagomak Berbertan zikloaren baitan, Plateruenean.

:: BERRIZ

AZAROAREN 23an

17:30ean, 'Gozatu jende aurrean hitz egiten' Gure Izarrak elkarteak antolatuta, Kultur Etxean.



ZINEMA

:: BERRIZ KULTUR ETXEA

La cordillera

. barikua 17: 18:00
. domeka 19: 19:00

:: DURANGO ZUGAZA

La liga de la justicia

. barikua 17: 19:30-22:00
. zapatua 18: 17:00-19:30-22:30
. domeka 19: 17:00-19:30-21:00
. astelehena 20: 18:30-21:00
. martitzena 21: 20:00
. eguaztena 22: 20:00

El autor

. barikua 17: 19:30-22:00
. zapatua 18: 19:30-22:30
. domeka 19: 18:30-21:00
. astelehena 20: 18:30-21:00
. martitzena 21: 20:00
. eguaztena 22: 20:00

La librería

. barikua 17: 19:30-22:00
. zapatua 18: 19:30-22:30
. domeka 19: 18:30
. astelehena 20: 18:30-21:00
. martitzena 21: 20:00

Yo-kai watch

. Zapatua 18: 17:00
. Domeka 19: 16:30

Deep

. Zapatua 18: 17:00
. Domeka 19: 16:30

:: ELORRIO ARRIOLA

Una mujer fantástica

. domeka 19: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

La mejor receta

. zapatua 18: 19:30-22:00
. domeka 19: 20:00
. astelehena 20: 20:15

Deep

. zapatua 18: 17:00
. domeka 19: 17:00

Sicixia

. martitzena 21: 20:15

Azaroaren 18an, 20:00etan, Errotan

Ondoko hilobiko tipoa

Maila sozial eta kultural ezberdina dute Aiorak eta Pablok. Irribarre batek, baina, bien arteko sua piztuko du. Iker Galarza eta Aitziber Garmendia dira antzezlan honetako protagonistak. Antzerkiño jaialdiaren baitan antolatu dute obra.



**> BOTIKAK****BARIKUA, 17**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 18**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Larrañaga-Balentiaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**DOMEKA, 19**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 20**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**MARTITZENA, 21**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**EGUAZTENA, 22**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**EGUENA, 23**
09:00-09:00**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea**Ermodo, 11 DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu GozotegiaZorionak, **June (696. alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.**> Joan den martitzenean, hilak 14, gure Malenek esku bete urte egin zituen. Bihar ospatuko dugu denok batera. Muxu handiak denon partez.****> Bihar, hilak 18, gure etxeko handienak, Maddik, bi esku bete urte egingo ditu; 10 urte jada! Ongi-ongi pasa gaurtik hasita. Muxu handiak denen partez!****> Kaixo, Aior!** Pasa den martitzenean zure urtebetetzea izan zen. Eskerrik asko benetan pertsona on ona zarelako. Zorionak, surflari!**> Amak, pasa dan martitzenen urteiek bete ebazan. Zorionak amatxo. Muxu pillo-pillo bat.****> Azkenean heldu da eguna, zure 9 urteak gogoratzen ditugu. Zorionak, Leire, bihotzez, eta bederatzu muxu zuretzako!****> Norak 4 urte bete ditu. Zorionak, laztana! Musu handi bat danon partez! Maite zaitugu!**

Anbotoren Lagunak

IURRETA KOPISTEGIAk emandako bulego material sorta zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

AZKENENGO ZOKETAREN IRABAZLEAK ERRIGORAK emandako 2 saski

KRISTINA MARDARAS ZEDRUN

BEGOÑA GOITIA ARROLA

ZORIONAK!

Anboto Komunikabideak
 @anboto
 @anbotokomunikabideak
 Tel.: 946 816 558 - www.anboto.org - lagunak@anboto.org

“Asko erakartzen nau euskarak, indiarren guaraniaren antzeko logika jarraitzen du”

Urtebete igaro da Brasilgo Curitiba hiritik Otxandiora etorri zela, urte intentsoa eta bizia izan dela dio

Hiri handi batetik herri txiki batera. Brasildik Euskal Herrira. Funtsezko aldaketa egin du musikari gazteak. Neska-lagunagaz tabernan lan egiten du, eta euskara ikasten ere bada-bil. Brasilgo cuica entzuteko aukera ere eskaini digu.

Maitasunak ekarri zaitu Otxandiora. Nola moldatu zara?

Ondo. Dena oso berria egin zait. Iaz ezagutu nuen Vanesa, Brasilen —brasildarra da, baina zazpi urte dira hemen bizi dela—. Internet bidez ezagutu ginen eta elkarregaz egotea erabaki genuen. Otxandion. Aldaketa handia izan da, Curitiba 2,5 milioi biztanle ditu. Baina beti erakarri nau herri txikietako bizimoduak. Dena den, hiria ere nire zati bat da. Musika lez.

Zerk deitu dizu gehin arreta?

Euskarak; euskalkiek. Euskara eta gaztelania aldi berean erabiltzeko joerak ere bai. Bi hizkuntza nola ikasiko nituen ere pentsatu nuen, batean bat eta bestean bestea erabiltzen badira! Uneoro elkar agurtzeko ohiturak ere atentzia eman zidan. Herriaren historiak: bonbardaketak, orduko ume hailetako batzuk bizirik daudela jakitea... Kuadrilletan batzeko ohitura ere asko gustatzen zait. Brasilen ez dago horrelakorik.

Brasilgo berotik Otxandioko hotzera ondo egokitu zara?

Curitiba hotzogatik da ezaguna. Brasil hegoaldean dago Paraná, eta klima berdintsua da. Iparralderago beroagoa da. Berlinen (Alemania) sentitu dut inoiz baino hotz gehien.

Musikaria eta konpositorea zara. Euskal musika entzun duzu?

Bai. Maurizia, Mikel Laboa, Benito Lertxundi... Trikitia eta panderoa ere ezagutu nituen, Korrika Otxandiotik irten zenean, adibidez. Orduan etorriberria nintzen, jendea ezagutzen hasiberria. Itzela iruditu zitzaidan! Hainbeste jende batuta hizkuntza eta kultura baten alde.

Herrian antolatutako ekitaldietan jo duzu?

Bai. Kulturantzatasunaren jaietan, Gure Esku Dagok egindako herri galdeketa... Koreeraz, gaztelaniaz, euskaraz... abestu dut. Brasilen grabaturiko *Ūhmas mataflora adentro* bakarkako lana ere erakutsi nuen urrian. Nire burua eta ingurua ezagutzeko bizitako prozesua islatzen du, eta Brasilgo hainbat lagunentzako ekarpenak batzen ditu. Baina sortzea, konposatzea, musikaren ikasketak gustatzen zait. Gitarra eskolak ere ematen ditut.

Tabernari egiten duzu lan.

Tabernari lanaz ez nekien ezer, baina antropologia lan itzela izanda. Askoz



gehiago ezagutu dut gizakia. Urte bizia, intentsoa izan da. Funtsezko aldaketa izan da.

Oso desberdinak gara euskaldunak eta brasildarrak?

Bai, baina bietan eguneroko estaldi eta poz berdinak ikusten ditut. Euskal Herria ohiturek, hizkuntzak, ezaugarri batzuek batzen dute, horiek berreskuratu eta indartzeko prozesuan zaudete. Brasilen zailagoa da, mestizaje handia dago. Identitatea garatzeko prozesuan dago Brasil.

Nola doaz euskara ikasketak?

Banabil ikasi guran, lotsa galtzen. Latina-gaz ez du loturarik eta oraindik jatorria ikertzen ari dira. Asko erakartzen nau euskarak, Paranako indiarren guaraniaren antzeko logikari jarraitzen dio, berba eta izendatutakoaren zentzua nahasiz: ‘Gar-mendia’ adibidez.

Dantzan, erritmoa falta dugu?

Oso garrantzitsua da gorputzeko artikulazio denak mugitzea. Gerria ere bai, baina ez dugu nahikoa askatzen. Askotan, lotsagatik. Hemen eta Brasilen, kulturak eragiten duen arren. Dena den, biribilketan mugitzen zarete zuek ere.

Munduan ezaguna da Brasilgo inauteria. Inauterizalea zara?

Brasilgo jatorrizko inauteriak erakartzen nau, Ranchoetan sortutakoak. *Rancho* bakoitzean sanba eskola bat zegoen eta inauterietan irtetzen ziren.

LAUHORTZA

AINHOA OLASO SOPELANA

Ikaslea



Hitzen oinarri ahula

Leku guztietan daude. Batzuetan indar handienarekin ahaztu nahi izaten ditugun arren, logura kentzeraino jarraitzen gaituzte izarapera. Harrien besteko pisua dute hitzek. Balio handia izan dezakete, edo inork irakurriko ez duen liburu batean gorde eta hil. Hitz zaintzailearen asmakizunen barru esangura igarri gabe, berehala lurrunduz. Elur gainean, txori hanka arinek utzitako arrasto sail ederra bezalaxe.

Hitzen tonu emozionala ez da azalkeriaz hartu behar, debaldeko mina eman dezakete (doinu eta neurriarekin asmatzen ez bada). Oharra: hizkuntza ez da igande askotarako prest egongo, berba asko ez daude astegun guztietarako eginak.

Kontrara ere. Artea ondo menderatuz gero, bertsotan edo, pertsuaditzeko gaitasunaz bihurtu gaiteske ahobero (abileziak kirurgialariarekin konpara daitezke egiatan, narrazioa komunikazioaren artisaun forma baita). Halakoak badira bertso saioetan, kopilotu eserleketan edota ospitaletako geletan.

Parentesien erabilpena ere ezaguna da inguruan. Ez al da basakeria mota berri bat isilaraztearena? Baina berbalagun hauen esperientziaren pobrezia ez da pobrezia handiago baten zati bat baino.

Jolasaz, bihur gaiteske olerkari, eta egin hiztegi bat, norberarena. Kale hutsetan harrapakin poetikoa eskuratzeko borrokatu. Hitzak bere bizia baitu, hitza esaten duen pertsona bakoitzak arnasa ematen dio.

Eurak dira gure arteko materia gutzia.

Lekuan lekuko egutegia

2018
Hitzakomunikabideak egutegia

ABADIÑO
ATXONDO
BERRIZ
DURANGO
ELORRIO

Palace / Nagorni / Anarkaterena
Kosko Altondo
Funtza
Bitz Liburubizitza
Harri

GARAI
IURRETA
IZURTZA
MALLABIA

Herriko Taberna
Itxiki
Herriko Taberna
Bastida Taberna

OTXANDIO
ZALDIBAR
ZORNOTZA

Sanoceta Taberna
Amendia
Ayendi paper-irtegia